

txintxarri

Badatoz!


#sanpedroak2023
#sorginjaiak2023

 **Ges**
aseguruak

 **Gora San Pedro Jaiak!**
Gora Lasarte-Oria!

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!





Jaiak
GUREAK DIRA
SON NUESTRAS
fiestas

**TTAKUN KULTUR
ELKARTEA**

SAN PEDRO JAIAK 2023



PATXINTXI SARIAK



EKAINAK 28 | 12.15

UDALETXE ZAHARREKO BALKOIAN
BEA EGIZABALEKIN



MAKARRONADA ETA BUSTI BLAI JAIA



EKAINAK 28 | 12:30

12:30 | TXUPINAREN ONDOREN OKENDORA
13:00 | KALEJIRA BASAUNDIRA
14:00 | MAKARROI JAN HERRIKOIA | UR JOLASAK



SORGIN DANTZA



EKAINAK 28 | 16:30

ORIAKIK
OKENDO PLAZARA



AFARI HERRIKOIA



EKAINAK 28 | 21:00

OKENDO PLAZAN



KANTU DANTZA JIRA




EKAINAK 29 | 11:30

SAGARDOTEGI KALETIK
HERRIAN BARRENA ETA
OKENDO PLAZAN AMAITU



SAGARDO DASTAKETA



EKAINAK 29 | 18:00

OKENDO PLAZAN
SARDINA JANA (Aterpea)
ETA ERROMERIA



San Pedro Jai oso bereziak



Txema Valles Viguera
Aurtengo omendua

Badatoz aurtengo San Pedro Jaiak, Lasarte-Oriakoak, nire herrikoak. 40 urteren ondoren, erreportari-eskribau lan zoragarri egin behar horren presiorik gabe gozatuko dut festez. Hala ere, egun berezi horietako ekitaldi nagusietako argazkiak aterako ditut, 1982an korrespontsal lanari ekin nionean osatzen hasi nintzen artxibo historikoa elikatzeke, aurreneko eguneko ilusio berarekin.

Jai egun hauek oso bereziak izango direla aitortuko dizuet, une zirrargarriak biziko ditudalako: herritarren botoak kontuan izanda, Lasarte-Oriako Udaleko Festak sailak erabaki du ni izango naizela aurtengo omendua. Hilaren 29an, San Pedro zaindariaren egunean, aitortza egingo didate kultur etxean, eta bezperako txupinazoa eta pregoia ere egingo ditut. Horren guztiaren aurrean, gainezka eginda nago, asaldatuta; esker hitzak besterik ez ditut nire ibilbide profesionalaren aitortza horren aurrean. Espero dut nire lanari esker gure herriaren egunerokoaren protagonista sentitu izana lasarteoriatarrek. Guztiei ahotsa ematen saiatu naiz beti, egunkariko tartea ahalik eta pluralena izan zedin. Zenbaitetan hori lortu ez badut, barkamena eskatzen dizuet.

Eskerrik asko Lasarte-Oriaren historia modernoaren zati baten lekukotza egiteko aukera eman izanagatik. Umiltasunez lan egiten saiatu naiz, nire jaioterriaren egunerokoaren eskribau izaten: udalerrri independente gisa eratzen ikusi dut eta beti daramat herria oso barruan. Bihotz-bihotzez, mila esker denoi. Esan bezala, bigarren planotik jarraituko dut lanean orain, artxibo historikoa elikatzen. Nire helburua hau da: etorkizuneko belaunaldiei ondare garrantzitsu eta interesgarri bat uztea.

San Pedro Jaiei dagokienez, espero dut herri parte hartzaile, plural eta alai baten isla izatea. Adin guztietako bizilagunentzako jarduerak antolatu dituzte, eta horietaz disfrutatu behar dugu. Garrantzitsuena, dena den, elkar errespetatzea izango da; hori egiten badugu, festa giroa askoz garbiagoa eta osasuntsuagoa izango da eta guztiok askoz hobeto sentituko gara. Urte estresagarri baten ostean, norberak bere errutina eta zereginekin, gogotsu gaude herriko jaietan murgiltzeko, eta ulertzekoa da, baina betiere kontuan izan behar ditugu albokoak, errespetuz. Gora San Pedro Jaiak!

zitek zientzi eskola

30. URTEURRENA 1993-2023
Beti zuei laguntzeko prest!

Goikale Kalea 12, behea.
Lasarte-Oria. 943-36 31 06
info@zitek-akademia.com
www.zitek-akademia.com

Laguntza taldeak
Ikasketa teknikak

2023-2024 IKASTURTEA

(irailaren 4tik aurrera)

Gorde plaza eta aukeratu eskolen ordutegia

· LH - DBH -


BATXILLERGOA - ZIKLOAK

· Zientziak | letrak

· HIZKUNTZAK: ingelera eta Frantsesa

2023 UDAKO IKASTAROAK

(uztailaren 3tik aurrera)



San Pedro Jaiak iritsi dira! Bost eguneko egitarau zabalaz gozatzeko aukera izango dute, udalaren eta herriko eragileen eskutik. Lasarte-Oria eta herritarrak buruz behera jartzeko moduko egunak ditugu aurretik. Goza ditzagun jaiak!

Ekainak 28, asteazkena

10:00 Ur festa, Maialen Chourraut kiroldegia. 5-12 urte arteko neska-mutilentzat. Parte hartzaileek igeri egiten jakin behar dute.

12:00 Haurren txupinazoa. Jaiei hasiera emango zaie. Ondoren, erraldoi eta buruhandien konpartsa abiatuko da, eta herriko kaleetatik barrena ibiliko da Joselontxo Txaranga eta Oaintxe in deu Txaranga lagun dituztela.

12:15 Gure Patxintxiak sarien banaketa, udaletxe zaharreko balkoia (Ttakun KE).

12:30 ¡Dale Ramón! antzezlan, Trapu Zaharrak taldearen eskutik, Okendo plaza.

13:30 Joselontxo txarangarekin kalejira Basaundi bailararaino.

14:00 Haurrentzako herri bazkaria, Basaundi bailarako plaza (Ttakun KE).

15:00 Ur jolasak, Basaundi bailarako plaza (Ttakun KE).

16:00 Busti Blai jarduera, Basaundi auzoan zehar (Ttakun KE).

16:30 Sorgin Dantza abiatuko da Oriatik (Ttakun KE).

18:00 Goxo Txaranga herriko kaleetan barrena.

18:00 Joselontxo txarangaren irteera erraldoi eta buruhandien bila.

18:30 Oaintxe in deu! txaranga herriko kaleetan barrena.

19:00 Txupinazoa eta Txema Vallesen pregoia udaletxe bakoitik, Okendo plaza. Joselontxo, Oaintxe in deu eta Goxo txarangen partaidetzarekin.

19:30 *Las aventuras de Manolo Bolaño* txotxongilo antzerkia, Mario Enzoren eskutik, Elizatze plaza.



Okela
Maialen

- **ARTISAU URDAITEGIA**
- **ETXEKO JANARIA**
- **BERTAKO HARAGIA**

Ondo pasa San Pedro Jaietan!

Kale Nagusia, 41 LASARTE-ORIA • Tel.: 943-36 39 12
Nafarroa kalea, 3 LEGAZPI • Tel.: 943-73 18 25
(Maialen) Karmelo Etxegarai, 10 DONOSTIA • 943-31 40 43 ([lgandetan irekita](#))



21:30 Afari herrikoa, Okendo plaza (Ttakun KE).

23:00 Lasarte-Oriako danborrada, Okendo plazatik. Maider Oartzabal Ziganda lasarteoriarrak udalerriko ereserkiari egindako koreografia aurkeztuko dute. (ATLO)

00:00 Dj Markelin, Oriarte-Landaberri patioko gazte gunea.

00:00 Dantzaldia Puro Relajo taldearekin, Isla plaza.

Ekainak 29, osteguna

SAN PEDRO EGUNA

10:00 Joselontxo txaranga, Okendo plazatik irtenda herriko kaleetan barrena.

11:00 Herri meza, San Pedro parrokian.

11:30 Haurrentzako parkea, Andatza plaza.

11:30 Xumelaren kantu eta dantza jira abiatuko da Sagardotegi kaletik, eta herriko hainbat kaletan barrena ibiliko da (Ttakun KE).

12:30 Herri kirolak, Elizatze plaza.

13:00 Txema Vallesi omenaldia, Manuel Lekuona Kultur Etxea.

16:30 Haur parkea, Isla plaza.

18:00 Sardina jan herrikoa, Okendo plaza (Aterpea).

18:00 Sagardo dastaketa eta erromeria, Okendo plaza (Ttakun KE).

18:30 Haur diskofesta, Oriarte-Landaberri patioko gazte gunea.

22:30 Bertso saioa, Manuel Lekuona kultur etxean.

Bertsolariak: Ane Labaka, Lierni Rekondo, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Jexux Mari Irazu eta Unai Iturriaga.
Gai jartzailea: Amaia Agirre.

22:45 Entzietrotzoa zezen simulatuekin, Kale Nagusia (LOZET).

23:00 Dantzaldia Duo Imperial taldearen eskutik, Isla plaza.

23:00 Zezensuzkoa, Kale Nagusia (LOZET).

00:00 The Noise Makers taldearen kontzertua, Okendo plaza.

00:00 Oihan Vegaren disko festa, Oriarte-Landaberri patioko gazte gunea.

Ekainak 30, ostirala

11:00 Pilota txapelketako finalak, Loidibarren pilotalekua (Intza). Benjamin, Alebin A, Alebin B eta Infantil mailako neurketak.

11:30 Haur parkea, Isla plaza.

12:00 Lerroko dantza erakustaldia, Okendo plaza (Biyak Bat elkarte).

16:30 Haur parkea, Isla plaza.

17:00 Errekortadoreen erakustaldia, Sasoeta ikastetxeko patioa.

18:00 Erraldoi eta buruhandien konpartsa herritik barrena, Oaintxe in deu! txaranga lagun dutela (LOZET).

18:30 Pilota partidak, Loidibarren pilotalekua:

Erasun eta Arrilaga - Larrarte eta Mendizabal Arteaga II eta Irazusta - Artetxe eta Merino II

Garcia

AUTOBUSAK

Nafarroa etorbidea 32-2.A
(Leku-Eder etxea) - ZARAUTZ
Tel: 609 47 94 78

info@garciabus.com - www.garciabus.com



*San Pedro ezin
hobeak igaro!*

• Edozein eratako bidaiak egiteko zerbitzu aproposak

• Bestelako zerbitzuak



Gora San Pedro jaiak!

Zirkuitu ibilbidea, 12 20160 • LASARTE-ORIA
Tel. 943-37 14 40 Mugikorra: 608 39 18 85
carroceriaslasarte@carroceriaslasarte.com

Carrocerías Lasarte Karrozeria

Trebeak gara kolpe handiak konpontzen

• Kabina labeduna

• Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala

• Tapizatuen garbiketa



19:00 Hu-Ha! Remember festa hasiera, Andatza plaza. Food Truck gunea egongo da.

19:00 *Mundo Costrini* kale antzerkia, Jaizkibel plaza.

19:30 Hu-Ha's Comedy; Mikel Bermejo eta Dario Maresen remember bakarriketa, Andatza plaza.

20:30 90. hamarkadako musikan oinarritutako DJ saioa, Andatza plaza.

22:45 Entzierrotxo zezen simulatuekin, Kale Nagusia (LOZET).



23:00 Dantzaldia Azabache taldearen eskutik, Isla plaza.

23:00 Neomak taldearen kontzertua, Okendo plaza.

23:00 Zezensuzkoa, Kale Nagusia (LOZET).

00:00 Dj Txolas, Oriarte-Landaberri patioiko gazte gunea.

00:00 Hu-Ha! Remember festaren ekitaldi nagusia, Andatza plaza.

01:30 Zetak taldearen kontzertua, Okendo plaza.



Uztailak 1, larunbata

07:00 Xexenak, Sasoeta ikastetxeeko patioa.

11:00 Erraldoi eta buruhandien konpartsa Blas de Lezo kaletik, eta herritik barrena Tirriki Ttaraka lagun dutela (LOZET).

11:30 Haur parkea, Isla plaza.

16:30 13 urtetik gorakoentzako parkea, Andatza plaza.

17:30 Gaztetxoan danborrada, Kale Nagusitik abiatuko da eta herriko kaleak alaituko ditu (ATLO).

18:30 Haur diskoteka DJ Nemuxen eskutik, Oriarte-Landaberriko gazte gunea.

19:00 Mariachi Mexico Lindo taldea herriko kaleetatik barrena ibiliko da, udaletxe zaharretik irtenda.

22:45 Entzierrotxo zezen simulatuekin, Kale Nagusia (LOZET).

23:00 Dantzaldia Supersingles taldearen eskutik, Isla plaza.

23:00 Zezensuzkoa, Kale Nagusia (LOZET).

00:00 DJ Nemuxen disko festa, Oriarte-Landaberri patioiko gazte gunea.

00:00 La Guardia taldearen kontzertua, Okendo plaza.

02:30 Dinbi Banda batukada, Okendo plazatik hasita.

02:30 Star Ways taldearen kontzertua, Okendo plaza.




Aterpeak gonbidatzen zaitu:

SARDINA-JATEA

Ekainaren 29an,
18:00etan Okendo plazan

*Herriko merkatariek
jai zoriontsuak opa dizkizuegu!*



Zurekin kontaktzen dugu!



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO



04:30 Dinbi Banda batukada, Okendo plazatik hasita.

Uztailak 2, igandea

06:00 Gautxori txarangarekin diana herriko kaleetan barrena.

06:30 Txokolatada, Elizatze plaza.

07:00 Xexenak, Sasoeta ikastetxeko patioa

09:00 Xake erakustaldia, Okendo plaza (Taula Xake Kluba).

11:30 Uretako haur parkea, Andatza plaza.

12:00 La Encina Virgen de Guadalupe koro eta dantza taldeen emanaldia, eta Extremadurako "migen" dastaketa, Okendo plaza (Extremadurako Etxea).

13:00 Voces Navarras taldearen jotak, Isla plaza.

14:00 Herri bazkaria, Tximistarreta parkea. Mahaiak, aulkiak eta parrillak egongo dira. Norberak bere bazkaria eraman behar du. (Sasoeta Sasoian / Udala)

16:30 Uretako haur parkearen jarraipena, Andatza plaza.

18:00 Erraldoi eta buruhandien konpartsaren agurra, Blas de Lezo kaletik, eta herritik barrena Barañaingo Ezpelur gaiteroak lagun dituztela (LOZET).

20:00 Burrumba elektrotxaranga, Udal zaharretik aterata herriko kaleetatik barrena.


22:45 Vulcano piroteknia etxe ospetsuaren su festa, Atsobakarreko zelaia.

23:00 DJ Nemuxen disko festa, Oriarte-Landaberri patioiko gazte gunea.

23:00 Dantzaldia Ibai Berriak taldearen eskutik, Isla plaza.

23:00 Gozategi taldearen kontzertua, Okendo plaza.

23:30 Sanpedroetako azken zezensuzkoa, Kale Nagusia.



Ondo pasa San Pedro Jaietan!

Deskontu eta beherapen handiak!

Bideo **TIEN 21** Lagunak

- Finantziakoa neurria
- Garraio zerbitzua
- Erabiltako gailuen jasotzea
- Aholkularitza espezializaturia
- Preziorik onena

Etxekotresna elektrikoetan adituak



ZERBITZU TEKNIKO PROPIOA

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria Tel: 943-37 31 34 | www.bideolagunak.com

Continental The Future in Motion

A2car

Ondo pasa festetan!



Ekipatu zure kotxea Continental gorpilekin eta

ERREGAIA DOAN

eskura dezakezu (80€ arte)

* kontsultatu baldintzak

uztailaren 31 arte

Zumaburu, 18 Lasarte-Oria Tel: 943-36 24 63

adats

ile-apaindegia

Gora Lasarte-Oria!
Gora San Pedro Jaiak!

Geltoki kalea, 3
MUGIKORRA: 600 52 39 88
LASARTE-ORIA



The Noise Makers taldeak kontzertua eman zuen iazko Zabaletako jaietan. TXINTXARRI

Punk eta rock doinuen eztanda, Okendo plazan

The Noise Makers taldeak 80. hamarkadako talde ezagun ugariaren abestien bertsioak joko ditu hilaren 29an, 00:00etatik aurrera. "Hiruzpalau kantuko segidak egitea gustatzen zaigu, ia arnasteko denborarik hartu gabe", ohartarazi du kideetako batek, Javi Morak

Iñigo Gonzalez Sarobe

Pilak ongi karga ditzatela lasarteoriatarrek hilaren 29rako, San Pedro egunerako, 00:00etatik aurrera punk rock eztanda batek astinduko duelako Okendo plaza: Javi Mora (gitarra eta ahotsa), Julian eta Oier Tokero (baxua eta gitarra, hurrenez hurren; aita-semeak dira), Oier Txoperena (gitarra) eta Aimar Altunak

(bateria) osatzen duten The Noise Makers taldeak ordu eta erdi inguruko kontzertu bizia emango du. "22 abesti joko ditugu, eta horietako batzuek festetarako prestatutako intro berezi batzuk izango dituzte", aurreratu du Morak. Berarekin elkartu da TXINTXARRI. "Tarte gutxi egingo ditugu eztarria freskatu eta ikus-entzuleekin hitz egiteko;

gustatzen zaigu hiruzpalau kantu jarraian jotzea, ia arnasteko astirik gabe".

22 kantu, 80. hamarkadako punk rock estilokoak; zenbait talde ezagunen bertsioak. "Negu Gorriak, Eskorbuto, La Polla Records, Barricada, Platero y Tú, Los Suaves... Trumoi taberna eramaten nuenean jartzen genuen musikan oinarrituta

dago gure erreperitorioa", azaldu du The Noise Makersen abeslariak. Gogoratu du pandemiaren aurretik hitz egin zuela talde bat eratzeari buruz herritar batzuekin (Julian Toquero, Mikel Retegi eta Kiko Ramone), taberna horren 10. urteurrenean, baina COVID-19aren eraginez ezin izan zutela une horretan martxan jarri.

Morari, hala ere, ideia ez zitzaion burutik joan, eta pandemiak eragindako egoerak ahalbidetu zuenean martxan jarri zuen berriz ere talde bat eratzearena. Konpromiso eta egoera batzuk tarteko, aldatu egin behar izan zituzten taldekide gehienak, eta artikulua hasieran aipatutako boskotea osatu. "Gustatzen zaigun musika jotzea eta ongi pasatzea dira gure helburu nagusiak; erromeria punk bat garelako esan dezakegu", azpimarratu du Morak. Norberaren bizitza pertsonal eta profesionalak tarteko, "nahi baino gutxiagotan" elkartzeko dira entseatzeko eta zuzeneko kontzertuak emateko, baina aukera dutenean dena ematen dute oholta gainean.

The Noise Makers (izena Julianek proposatu zien gainerako taldekideei, beste batzuekin batera, eta hori aukeratu zuten) eratu osteko lehen emanaldia Jalgi kafe antzokian egin zuten, Trumoi tabernaren omenez antolatutako Tximista Egunean, iazko apirilaren 30ean. Geroztik, beste hainbat egin dituzte. Horietatik ugari, herriaren bertan: Avenida taberna-jatetxean, iazko sanpedroetan, Euskararen 10. Maratoialdian, Dinbi Banda batukada taldearen 10. urteurrenean, eta abar. Inguruko herrietan (Andoainen, esate

baterako) jo dute eta urrutia ere bai: joan den urteko abuztuan, adibidez, Gaztela eta Leongo Baltanas herriari ziren.

Lehen aipatutakoak, larri ibiltzen direlako askotan elkartzeko, entseatzeko eta zuzenekoak ematen segiko dute. "Disco bat egiteari buruz hitz egin izan dugu, baina zail ikusten dugu uneotan, denbora asko eskatzen duelako horrek".

Belaunaldi berriak

Morak urteak daramatza musika munduan sartuta, makina bat taldeetan jo du edo jotzen jarraitzen du. "Adinean gora goaz eta gure kontzertuetara 40 urtekoak eta gehiagokoak etortzen dira gehienbat, ea festetarako gazteak ere animatzen diren. Pena ematen dit horrek, gaur egun industrietan eta hedabideek beste musika estilo batzuk sustatzen dituzte guk jotzen ditugunak alboratuta, eta herriari ere gero eta talde gutxiago ditugu". Zentzu horretan, ilusio izugarria egin zien (batez ere aitari, Juliani, jakina) Oier Toquero taldekide izatera animatu izana. "14-15 urte zituenean batu zen taldera, bere lagunekin instrumentuak jotzen hasi zenean". Gazteena bera izanagatik, taldeko kide mugituena aita da, Julian. "Bera da tira egiten duena, aktiboena, logoa diseinatu zuena [buzur bat, goialdean tximista batek jotzen duena], entseatzeko egunak proposatzen dituena... Batzuetan lasaitu egin behar izaten dugu!".

"GUSTATZEN ZAIGUN MUSIKA JOTZEKO ETA ONGI PASATZEKO BILTZEN JARRAITZEA DA GURE HELBURUA"



ETXEZARRETA HARATEGIA

Bertako okela • Urdaitegia • Eramateko janaria

Ondo pasa sanpedroetan eta asko disfrutatu festak!



Hipodromo Etorbidea, 2 • Tel. 943-36 13 79 / 610 44 15 44 • LASARTE-ORIA



"Pozik eta lasai gaude, lana ongi egin dugulako"

MAIDER OIARTZABAL ZIGANDA

ATLO elkarteak eskatuta, 'Lasarte-Oriako ereserkia' abestia koreografiatu du lasarteoriatarrek. Euskal dantzan oinarritutako urratsak prestatu ditu, moldaketa batzuekin

Iñigo Gonzalez Sarobe

Dimensio berri batean sartuko da *Lasarte-Oriako ereserkia* hilaren 28an, 23:00etan, ATLO elkarteak urtero antolatzen duen danborrada hasten denean: doinua eta letra ez ezik, koreografia izango du. Maider Oiartzabal Ziganda herritarra izan da sortzailea. Berarekin elkartu da TXINTXARRI, estreinatzerara doazenari buruz gehiago jakiteko.

'Lasarte-Oriako ereserkia' koreografiatu duzu. Nolatan?

Pandemiaren aurretik jo zuen nigana Olatz Telleriak, ATLO elkarteak zuzendaritza berriko kideetako batek. Orduan hartu zuten aurrekoen erreleboa, eta esan zidan gogoa zutela danborrada berritzeko, bazituztela ideia batzuk; horietako bat, *Lasarte-Oriako ereserkia* koreografiatzea. Ilusionatuta zegoela nabaritu nuen berarekin hitz egin nuenean, eta baietz esan nion, egingo nuela.

Pandemiaren eraginez, geldirik utzi behar izan genuen proiektua. Iazko jaietarako prestatzeko aukera izan zuten, baina ni beste egitasmo batzuekin nenbilen. Hala ere, esan nien nahi bazuten aurrera egiteko, baina ezetz esan zidaten, itxaron egingo zidatela; eskertuta nago horregatik. Aurten estreinatuko dugu, azkenean.

Nolako izan da sormen prozesua?



Oiartzabal (eskuinean), dantzarekin hizketan, hilaren 21eko entseguan. TXINTXARRI

Indibidualagoa, elkarre batek egindako eskaera bat izan delako. Euskal dantzan oinarritutako koreografia bat da, baina pausoak moldatu egin behar izan ditut apur bat, melodiarekin bat egin zezaten. Abestia bidali zidaten, eta, ezagutzen nuen arren, atentziaz entzundakoan jabetu nintzen badituela ñabardura berezi batzuk eta urratsen purutasuna mantentzea ez zela erraza izango.

Behin koreografia sortuta, dantzarekin jarri nintzen harremanetan eta pausoak

ikasteko materiala bidali nien. Geroago, elkartzen eta entseatzen hasi ginen, zalantzak argitzen, ñabardurak fintzen... Agenda estuak ditugu guztiok eta ez gara astero elkartu, baina ongi moldatu gara.

Nortzuk izango dira dantzariak?

Hasieratik argi nuen ez zirela asko izango, uste dudalako eleganteago geratzen dela erakusterakoan; lau eta sei artean nituen buruan. Lau izango dira azkenean. Gainera, asmatu dugu, Okendo plazan izango dugun tokia ez delako zabala

izango: danborjoleak, kantinerak, musika banda, gu... Asko izango bagina, komeriak izango genituzke.

Banan-banan deitu nien eta oso pozik nago. Iruditzen zait, modu natural batean, gure herrian euskal dantzarekin lotura dutenak ordezkaturiko ditugula: Dabid Egizabal, esaterako, Plaza Dantzarekin lotzen dut nik; Ruben Arranz, Erketz EDTrekin; Uxue Odriozola, Kukuka eskolako irakasle da gaur egun; eta Garazi Iparragirre aukeratu izana keinu bat da herrikoak izan, baina kanpoan dantzatzeko dabilzane. Azken bi horiek, gainera, gazteak dira; belaunaldi desberdinak ere lotuko ditugu.

Egun gutxi falta dira estreinaldirako. Nola doaz entseguak?

Ondo, uste dugu ongi funtzionatuko duela eta herritarrei gustatuko zaiela. Ilusionatuta gaude. ATLO elkarteak pozik gaude, dantzariak ere bai... asko pozten nau horrek. Argi nuen ez nuela koreografia oso zail bat egin nahi, halakoa izan balitz elitista gisa ikusiko luketeelako herritarrek, ziurrenik. Nire asmoa da, nahi badute, herritarrek pausoak ikasi eta dantzatu ahal izatea. Aurten sortu dugunak gero zer ibilbide izango duen ez dakit, zuzendaritzak esan zidan urtero egiteko asmoa dutela, baina agian dantzariak aldatuko dira, beste abestiren bat landuko dugu... Ikusiko dugu.

Lasai gaude, egin beharreko lana ongi gauzatu dugulako. Nirekin lan egiten duten dantzariak beti esaten diet gauza bera, ez ditudala salduta utziko; duintasunez erakutsiko dugula egindakoa espazio eszenikoan. Hortik aurrera, zuzenekoan gure esku ez dauden mila gauza gerta daitezke, baina badakit ez dela izango gu nahikoa saiatu

ez garelako. Zorrotza naiz horrekin.

Proiektu gehiago dituzu esku artean? Nire ibilbide profesional guztia dantzako irakasle eta formatzaile gisa egin dut, horrekin sentitzen naiz identifikatuen. Uneotan, emakumeen etxeetan lan asko egiten ari naiz, jabetza eskoletan, tailerrak ematen: helburua da partaide bakoitzak bere gorputza ezagutzeko eta horren bidez mugimendu askeak egitera iristea. Autoezagutza, ahalduntzea, burujabetza, ongizatea... Horrelako kontzeptuak lantzen ditut haiekin eta oso gustura ari naiz. Hori guztia, betiere, dantzaren enkoadre baten barruan. Dantza organiko saiokak dira, norberak bere lengoia propioa gara dezan.

Etorkizunean zer? Ez dakit, baina egitasmo, proposamen eta ideia berriak etorriko dira, ziur. Gogoa daukat proiektuak lantzen jarraitzeko, egin izan ditut aurretik konpainia eta talde desberdinentzako koreografiak. Bestalde, gorputz terapiari buruzko formakuntza bukatzen ari naiz. **Garrantzitsua al da norberak bere gorputza lantzea?**

Izaki gorpuztuak gara, gorputza gurekin doa toki guztietara. Beti esaten dut ez duela gezurrik esaten, informazioa eta mezuak bidaltzen dizkigu uneoro: gure barne munduaren isla da, tenplu bat. Ahaztu egiten zaigu hori askotan, eta, horregatik, ongizate eta autoezagutzara iritsi nahi badugu, landu egin behar dugu.

"NIRE ASMOA DA, NAHI BADUTE, HERRITARREK PAUSOAK IKASI ETA DANTZATZEA"

Jalgi
kafé
antzokia

Geltokia Kalea, 4 behea
LASARTE-ORIA

Aurtengo sanpedroetan:
Jai, ki, jaitsi, jaietan jauzi
eta... **JALGI** hadi gurekin!

Eguerditan pintxoak eta gauetan parranda!!



Egitaraua eta erratzak prest, blusak eta zapiak soinean jartzeko azken orduen zain, Lasarte-Oriako sorgin guztiak batu eta irrintzika herriko kale eta plazak kolorez betetzeko prest daude Sorgin Jaiak

EPA LASARTE HHI 2023-2024 ikasturtea

Deitu hitzordua eskatzeko!

MATRIKULA ZABALIK ekainaren 19tik 29ra eta irailaren 1etik 15era

- **Lehen Hezkuntza** (Kultura orokorra. Ingelera, Gaztelania, Idazmena eta Irakurmena. Hiritartasun digitalerako Informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Elikadura. Osasuna. Ongi izatea. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...).
- **Bigarren Hezkuntza (DBH-ko titulua ziklo ertaina eta gorena egiteko, 4 hilabeteko ikastaroak)**
- **Gaztelania atzerritarrentzat.**
- **OINARRIZKO EUSKARA.**



Tel. 943-37 64 43 / 943-36 66 08 • Beko kalea bidea 1º 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarte.eus



Carrefour express

Juan XXIII plaza, Lasarte-Oria

Gora Lasarte-Oria!

betresna elektrikoak

camicería

express

2,99

**Ekainak 27, asteartea****PIJAMAK KALERA**

18:30 Kuadrillen jaitsiera, Kale Nagusitik abiatuta, pijama jantzia.

20:00 Txupina, Okendo plaza.

OMENDUAK: Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak.

22:00 Kinada, Okendo plaza.

23:00 Ameba, Okendo plaza.

00:30 DJ Fantasia, Okendo plaza.

Ekainak 28, asteazkena

18:00 *Hitz esana* antzezlan, Gaztelekuan Mejillon Tigre kolektiboaren eskutik.

20:00 Sexu askapenaren aldeko manifestazioa, Okendo plazatik hasita.

23:30 Mirua, Okendo plaza.

01:30 Lukiek, Okendo plaza.

**Ekainak 29, osteguna****SORGIN EGUNA**

12:00 Bizipozaren akelarrea, Okendo plaza.

14:30 Sorgin bazkaria, Okendo plaza.

17:00, Sorgin konoa, Okendo plaza.

20:00 Elektropottote elektrotarangak girotuko du erdialdea.

22:00 Lizartxo erromeria, Okendo plaza.

01:30 DJ La Fulana, Okendo plaza.

Ekainak 30, ostirala**ELKARTASUN EGUNA**

18:00 Bertsopoteoa, Okendo plaza eta Kale Nagusi ingurutik.

Bertsolariak: Aritz Ramos, Urko Ormazabal, Maddi Lasa, Oihan Navarro, Xuban Urdalleta eta Nikola Iraola (Earra bertso eskolako ikasleak). Gai jartzaileak Nora Otaegi eta Añes Apaolaza izango dira.

19:00 Presoen aldeko manifestazioa, Okendo plazatik aterata.

21:00 Afaria, Okendo plazako aterpean.

Uztailak 1, larunbata

12:00 Sorgin azoka, Okendo plaza.

16:00 II. Sorgin Tortilla Txapelketa, Okendo plaza.

18:30 Ankoker, Okendo plaza.

22:00 Rukula, Okendo plaza.



Ondo pasa herriko jaietan!
Gora Lasarte-Oria!



ILLARRETA

ITURGINTZA ETA IGELTSEBITZA

BULEGOA

Geltoki kalea 14 - Lasarte-Oria
Tel. 943-36 31 47 eta 943-36 17 52

info@illarreta.com

**TAILERRA**

Oialume Bidea, 24 - Astigarraga
Tel. 943-33 17 54

- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emailea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

- Igeltseritza orokorra
- Etxebizitza eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen koordinazioa
- Arreta pertsonalizatua



Akelarrera gonbidatu dituzte herritarrak

Sanpedroak baino egun bat lehenago hasiko dira Sorgin Jaiak, hilaren 27an, eta egun bat lehenago bukatu, uztaillaren 1ean. Bost egun horietan zehar hamaika jarduera aurrera eramango dituzte, ohi bezala, askotariko osagaiekin edabe magiko bat prestatuta

Txintxarri

Herritik eta herriarentzat, maitasun askorekin eta, ohi bezala, giro ona eta aldarrikapenak uzartuta prestatu dute aurtengo edabea Lasarte-Oriako sorginek. Hilaren 27an hasiko dira Sorgin Jaiak, asteartearekin, San Pedro Jaiak baino egun bat lehenago. Lehen jarduera, nola ez, kuadrilen jaitiera izango da, blusa koloretsuak eta pijamak jantzita. Isla plazatik abiatuko dira, 18:30ean, eta tabernaz taberna aurtengo sorginkeria zabalduko dute, Kale Nagusira iritsi arte.

Laino guztien azpitik eta sasi guztien gainetik ibili eta gero, Okendo plazara joango dira, txosna gunera, aurtengo omenduari aitortza egin eta txupinazoa jaurtitzera. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen piztuko dute jai leherraraziko duen suziria. "Urte hauetan guztietan zehar Lasarte-Oriako euskalgintza, herrigintza eta irrigintzaren ikur zein eredu izan dira. Haur ginenetik gazte bihurtzeraino gure buru, bihotz eta eskuak martxan jartzeagatik, eskerrik asko". 20:00etan izango da ekitaldi hori.

Afalostean, lehen parranda gaua izango dute horretarako aukera eta gogoia dutenek, musikari hauen eskutik: Kinada,

Ameba eta DJ Fantasia. Hiru emanaldiak Okendon bertan izango dira.

Sexu askapenerako manifestazioa Mejillon Tigre kolektiboaren *Hitz esana* antzezlanak irekiko du hurrengo eguneko egitaraua. Gaztelekuan egingo dute emanaldia, 18:00etan. Bi ordu geroago, Lasarte-Oriako Transmaribollo Kolektiboak, iaz bezala, sexu askapenerako manifestazioa egingo du, Okendotik abiatuta, 20:00etan. "Borroka herrira ekarri genuen pasa den urtean eta aurtengoan berriro egingo dugu", adierazi dute eragile horretako kideek. "Garrantzitsua da guretzat, gure egunerokotasunean bizi ditugun inbisibilizazioegoerei eta askotarikoerasoei herrian ere aurre egiteko garaia dela uste dugulako". Azpimarratu dute Euskal Herrian hirukoiztu egin direla salatutako eraso transmaribollofoboak, azken lau urteetan. Bidenabar, zehaztu

SORGIN AZOKA EGINGO DUTE UZTAILAREN 1EAN, BERTAKO SORTZAILEEN LANA IKUSARAZTEKO

dute kolektibo horiek entzun behar izaten dituzten gorroto diskurtsoak "gero eta ozenagoak" direla: "Ustezko zilegitasun, lasaitasun eta askatasun handiagoz erasotzen gaituzte, baita Lasarte-Orian bertan ere".

Horren aurrean, "ezinbestekoa" iruditzen zaie autodefentsa praktikan jarri eta saretzea. Hori guztia ez da, ordea, biolentzia hori guztia gorpuzten dutenen ardura soilik: "Jarrera neutrala izatea konplize izatea ere badela uste dugu. Borroka hori ez da soilik gurea, eta transmaribollo bezala beren burua identifikatzen ez duten baina manifestazioan parte hartu nahi dutenei batzeko gonbita luzatzen diegu".

Azoka eta tortilla txapelketa

Bertako zenbait sortzaileen lana ezagutzeko aukera izango dute herritarrek uztaillaren 1ean, Sorgin Azokan, 11:00etatik 14:30era. Makina bat postu jarriko dituzte Kale Nagusian eta saio berezi batzuk aurrera eraman: 11:00etan, enkoadernatzen ikasteko tailerra, Tintak-en eskutik; eta 12:30ean, umeentzako ipuin kontalaria.

Arratsaldean, II. Sorgin Tortilla Txapelketa egingo dute Okendon bertan, iazko arrakastak



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak omenduko dituzte aurtien. TXINTXARRI



Sexu askapenerako manifestazioa hilaren 28an egingo dute, 20:00etan hasita. TXINTXARRI

hauspotuta. 16:00etan hasiko dira. Banaka edo taldeka parte hartu ahalko dute herritarrek, eta patata tortilla bakoitzeko 8 euro ordaindu, ahal dela Bizum bidez, zenbaki honetara: 662 61 19 08. Aukera ez dutenek txapelketaren egunean bertan ordaindu beharko dute. Osagaiak (arrautzak, patatak, tipula eta olio) antolatzaileek jarriko

dituzte, eta tresneria (suak, mahai tresnak eta zartaginak) partaideek eraman beharko dituzte, etxetik.

Horiek guztiak Sorgin Jaiak egitarauko jarduera nabarmenak dira. Egitarau osoa aldizkari honen 10. eta 11. orrietan kontsulta dezakezue, eta baita <https://txintxarri.eus/bereziak/sanpedroak-eta-sorgin-jaiak-2023> helbidean ere.



ELECTRICIDAD ARREGUI



Freskatu ezazu etxea eta gozatu uda!





SABAICO LANPARA HAIZAGAILU







KLIMATIZAGAILU



600 85 75 86
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21

KOMERTZIO TXIKI HERRI HANDI

LASARTE-ORIA

GREMIOAK



BARNE-DISEINUA

SUGATE
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
 - AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
 - HORMA-ARMAIRUAK
 - MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5
Lasarte-Oria
Tel: 943-361 471
www.sugatecocinas.com



ITURGINTZA

ELOLA
ITURGINTZA

ITURGINTZA | GASA
BEROKUNTZA | ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA

Galdara, berogailu eta termo ordezkapenak

Tel: 608 76 00 06
elolaiturgintza@gmail.com
LASARTE-ORIA



IGELTSERITZA

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Hipodromo etorbidea, 10 LASARTE-ORIA



ELEKTRIZITATEA

**ELECTRICIDAD
ARREGUI**

- Material elektrikoa
 - Argiak
- Etxetresna elektrikoak
 - TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21
600 85 75 86 www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com



KRISTALDEGIA ETA LEIHOAK

ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
 - Beira bikoitza
 - Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
 - Ispiluak
 - Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943-37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com



PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK

Pertsianak, motorizazioak,
barandak, toldoak, armairuak,
eltxo sareak eta gehiago...

☎ 943-36 64 95
ventanas_isu@hotmail.com

Kale Nagusia, 46 behea.
LASARTE-ORIA
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala
USURBIL



ZURE NEGOZIOA IRAGARRI NAHI DUZU HEMEN?

PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS | 646 82 44 66



Ttakunen ttakuna, jaietan ere bai

Euskararen eta euskal kulturaren normalizazioa bultzatuko ditu Ttakun Kultur Elkarteak hastear diren San Pedro Jaietan ere, hainbat jarduera antolatuta. Antolatzaileek ohartarazi dute boluntarioak beharko dituztela horietako zenbait aurrera eramanez

Txintxarri

Ttakun-ttan-ttakun, ttakun-ttan-ttakun...Txalapartaren erritmoa bailitzan, azkarregi joan ez baina gelditu gabe, Lasarte-Orian euskara eta euskal kulturaren normalizazioa bultzatzen dihardu Ttakun Kultur Elkarteak. Horretarako urte osoan zehar antolatzen ditu ekimenak, baita hastear diren San Pedro Jaietan ere: Gure Patxintxiak sariak, makarroi jana eta Busti Blai jolasak, Sorgin Dantza, herri afaria, Xumela koruaren kantua eta dantza jira eta sagardo dastaketa izango dira aurtengoak. Horiei buruzko zehaztapenak ematen jarraitu aurretik, hona antolatzaileek lasarteoriarrei adierazi nahi dietena: boluntarioak beharko dituztela jarduerak aurrera eramateko.

Jaietako, Gure Patxintxiak sariak banatuko ditu euskara elkarteak, udalarekin batera, udaletxe zaharreko balkoian, haurren txupinazoaren ostean. 12:15ak aldera hasiko da Bea Egizabal umoristak gidatutako ekitaldia. Artikulu honetan ezin dugu jakinarazi nortzuk jasoko

duzen aitortza aurten (urtero lez, 65 urtetik gorako emakume eta gizon bana aintzatetsiko dituzte), bozkatzeko epea zabalik dagoelako oraindik. Azken eguna hilaren 25a izango da, igandea. TXINTXARRI aldizkariaren atari digitalean sartu behar duzue botoak emateko, esteka honetan: <https://txintxarri.eus/lehiaketa/1685531212495>. Bestela, eskuineko orriko zatidurako QR kodea eskanea dezakezue sakelako telefonoarekin.

Makarroi jana eta Busti Blai, Basaundi auzoan

Haurrek (2011. eta 2014. urteen artean jaiotakoek) plan ederra izango dute egun horretan bertan: makarroi jana goizean zahututako indarrak berritzeko, eta Busti Blai ur jolasak ondoren. 12:30ean elkartuko dira udaletxean, Bertatik kalejiran abiatuko dira Basaundi

MAKARROI JANERAKO ETA HERRI AFARIRAKO TXARTELAK SALGAI DAUDE, TTAKUN KE-REN BULEGOAN

auzorantz. 14:00ak aldera hasiko dira bazkaltzen, eta bukatutakoan ekingo diete ur jolasei, 16:15ak arte. Orduan bukatuko da jarduera. Txartelak salgai ditu Ttakun KEk, 3 eurotan, bere bulegoan (Geltoki kalea, 25).

Basaunditik gertu abiatuko da Sorgin Dantza, Oriatik, 16:30ean. Ohi bezala, zortzikote txikiko nahiz helduko partaideek dantzatuko dute, eta baita horien atzetik ilara luzea osatuko duten lasarteoriatar ugarik ere. Kale Nagusi osoa zeharkatu eta gero ailegatuko dira Okendora, helduen txupinazoa (19:00etan izango da) hasi baino minutu batzuk lehenago, plaza horretan kalejira erraldoi bat egiteko. Antolatzaileek ohartarazi dute eskertuko dutela dantzari gaztetxoek gurasoen laguntza, ibilbidean zehar partaideei edariak banatzeko.

Hilaren 28ko ekimenetako azkena herri afaria izango da, 21:00etan, Okendoko arkupeetan. Orain arte zikiri jana egin dute bertan elkartu direnek, baina Ttakunek menua aldatu behar izan du aurten, jaki goxo hori prestatzen zuen lantaldeak



Hilaren 29an, 18:00etatik aurrera, herriko zenbait baserrian egindako sagardoa

erretiroa hartzea erabaki duelako. Edonola ere, menu ederra prestatu dute: arrain pastela, entsalada mistoa, oilaskoa eta postrea (edaria eta kafea barne). Txartel bakoitzak 25 euro balio ditu eta euskara elkartearen bulegoan erosi behar dituzte lasarteoriatarrek.

Biharamunean, San Pedro egunean, Xumela koruko

lagunak kantua eta dantza jiran ibiliko dira herrian barrena, Oaintxe in deu! txarangak lagunduta. Jalgi kafe antzokian jarri dute hitzordua, 11:00etan, nola ez, hamaiketako egiteko. Ordu erdi geroago, Sagardotegi kaletik abiatu eta erdigunea zeharkatuko dute. Abesbatzako kideek jakinarazi dutenez, 13:00ak aldera iritsiko dira

aldika

productos selectos



ahatekinak
ehizak eta hegaztiak
bakailao gezatua
onddoak
marinatuak
olagarroa

Ondo pasa San Pedro
Jaietan! Gozatu!

Industrialdea, 19-20 LASARTE-ORIA • Tel: 943-37 70 89
aldika@aldika.com • www.aldika.com





dastatzeko aukera izango dute herritarrek, Okendo plazan. TXINTXARRI

Okendora, eta Sorgin Jaiak-ek antolatutako Bizipozaren Akelarrean parte hartuko dute.


Azkenik, arratsaldean, 18:00etatik aurrera, ohiko bilakatu den sagardo dastaketa aurrera eramango du euskara elkarteak, Okendon bertan. Telleri, Saltsate, Sollaenea, Zubillaga eta Buenabista baserrietako sagardoa

zerbitzatu dute botatzaileek. Bertaratzen direnentzat, hemen proposamen bat, askari ederra egiteko: basoa bete eta postuetatik metro gutxitara egongo den Aterpea elkartearen gunera joatea, sardina eta ogi puska bat hartzera. Jan eta edan ostean, horretara animatzen direnek gorputza dantzan jartzeko aukera izango dute plazako erromerian.

Nortzuk izango dira Gure Patxintxiak?



Antonio Fernandez 'Cepeda'



Pepi Aldazabal



Ixabel Zuaznabar



Milagros Etxaniz



Julian Sagardia




Mari Angeles Iburguren



Joxe Mari Azkonobieta



Exiquio Perez



Eugeni Ojanguren



Sebastian Kerejeta



Miren Zumeta



Juan Segurola

Ttaku Kultur Elkarteak, udalarekin elkarlanean, 65 urtetik gorako bi herritar maitagarri omenduko ditu aurtien ere, emakumezko eta gizonezko bana. Aitortza polita jasoko dute bi pertsona horiek hilaren 28an udaletxe zaharreko balkoian, haurren txupinazoaren ostean, 12:15 aldera. Botoak emateko, eskanea ezazue alboko QR kode hau hilaren 25a baino lehen. Animatu eta parte hartu!



txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

**Zure iragarkia jarri
nahi duzu? Jar zaitez
gurekin harremanetan!**

Deskontu bereziak herrikoentzat!

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66

MAiTE

ESTETIKA ARETOA

- Aurpegiko azala
- ✓ BERROREKATU
- ✓ BERRESKURATU
- ✓ BIRSORTU

PROBATU
MAKINA

Ehunen birsortzea
eta giharren indartzea
tratamendu bakarrean.



Ondopasa festetan! Uistin Kalea z/g • Tel. 943-37 08 45



"Sentitzen dut egin dudan lana eskertu dutela lasarteoriarrek"

TXEMA VALLES VIGUERA KAZETARI ERRETIRATUA

40 urte lanean egin ostean, sei hilabete daramatza 'El Diario Vasco'-ko korrespondentsalok erretiratuta. Aintzatespen ederra egingo dio herriak laster; sanpedrotako omendua izango baita

Maddi Zaldúa

Txema Valles Viguera kazetari erretiratua (Lasarte-Oria, 1958) omenduko du Lasarte-Oriako Udalak aurten San Pedro Jailetan. 40 urteko ibilbide profesionala amaituta, bere jaioterriari emandakoa aitortu nahi dio erakundeak. Festei hasiera emango dien txupina jaurtitzeko ohorea izateaz gain, udal ordezkarien omenaldia ere jasoko du hilaren 29an, kultur etxeko auditorioan. Omendua izatea nola sentitu duen kontatu dio TXINTXARRI-ri.

Nola jaso duzu omendua izatearen berria?

Sorpresa handia hartu dut. Sei hilabete daramatzat erretiratuta eta ez nuen espero. Poz handia izan da; erabateko gogobetetasuna sentitu dut nire jaioterriak egingo didan aitortzagatik. Munduko

herririk onenak omenaldi hau egitea zoragarria da. Eskertuta nago lasarteoriarrekin, eta hori helaraziko diet.

Zer uste duzu dela omenaldi honekin aintzatetsiko dizutena?

40 urtez egin dudan lana aitortuko zaidala uste dut. Erabateko dedikazioa izan dut nire lanbidearekiko eta herriak hori eskertzen badu, ni pozik egindakoarekin. Kazetaritza modu askotara egin daiteke; nik, nire izateko eragatik egin dut egin dudan moduan.

Eta horrek zenbait ondorio izan ditu nigan. Familiarekin egon ahal izateko denbora, adibidez, galdu egin dut. Oso denbora gutxi eskaini ahal izan diet emazte eta bi alabei. Eta, nola ez, eskertu behar diet nirekiko izan duten jarrera, azken batean, Kristinak

[emazteak] onartu edo ez onartu, ulertu du nire egoera, bestela ez baikinen hainbeste urtez elkarrekin egongo. Kazetari lanetan ari nintzela ezagutu genuen elkar... eskertuta nago etxekoekin ere.

Nire lana egin ahal izan badut, Lasarte-Oriari eta berau osatzen duten norbanako eta kolektibo guztiei esker izan da, hortaz, esker hitzak baino ez ditut horientzat guztientzat ere.

Nolakoa izan da zure lan ibilbidea?

Denetarik izan du. Lan gogorra, sakrifikatua eta dedikazio handikoa izan da, baina polita ere bai; bete nau. Herriaren sorrera eta nire kazetari ibilbidea elkarrekin dira. 1986. urteko otsailaren 15ean sortu zen Lasarte, eta ni, 1983an hasi nintzen korrespondentsal lanetan *La Voz de Euskadi*-n. Urtebetez aritu nintzen

bertan, eta ordutik aurrera, *El Diario Vasco*-n (DV).

Nola hasi zinen kazetaritzan?

Ezustean. Elektronika ikasi nuen, eta Michelin lantegian egiten nuen lan, baina kirolarengatik lan hori utzi behar izan nuen. Soldaduska egiteko garaia iritsi zitzaidan, kanpoan eman nuen urtebete, eta handik herrira itzuli nintzanean, *La Voz de Euskadi*-n aritzeko aukera eskaini zidaten. Ez genuen sosik irabazten, ordea, eta halako batean, nire betiko lagun Imanol Lizardiri esker izan nuen DVn hasteko aukera. [Gogoan izan du, maiatzean hil baitzen gaixotasun baten ondorioz]. Bidenabar, elkarrizketa hau baliatu nahi dut esateko aitortza hau berarentzat ere izango dela. Nire aurretik berak egiten zuen lan DVrentzat,

baina euskara irakaslea ere bazen eta Segurako barnetegian lanean hasi behar zuelako utzi zuen korrespondentsal lana. Horrela hartu nion lekukoa nik.

Ez da herriak omenaldia egingo dizun lehen aldia.

Hala da. Lehena 2013an egin zidaten; Semblante Andaluz elkartearen ekimenez etorri zen orduko hura. Elkarte eta norbanakoak gehitu ziren, eta oso aitortza polita izan zen. Orduko hartan ere ondoan izan nuen Imanol [Lizardi], Joxe Krutz Labakarekin batera bertsoak abestu zizkidan, bere semeak gitarra jotzen zuen bitartean. Zoritzarrez aurten ezingo gara elkarren ondoan egon, baina nirekin egongo da. Ostadar bere 40 urteurrena ospatzen ari da, eta



Txema Valles argazki kamera eskuetan duela, bere bulegoan. TXINTXARRI



KRISTINA, JOANA ETA ENARA EMAZTE ETA ALABAK

Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizugu, aita. Eskerrik asko jarraitu beharreko eredu izateagatik eta sakrifizioaren balioa erakusteagatik. Zure lana funtsezkoa izan da gure herria informatuta eta gure inguruko gertaera garrantzitsuenekin konektatuta egoteko. Lasarte-Oria eta gure familiarekiko erakutsi duzun konpromisoa bihotzean eramango dugu beti. Zurekiko sentitzen dugun harrotasuna eta esker ona ere adierazi nahi dizkizugu: kazetaritzarekiko zure dedikazioa eta gutariko bakoitzarekiko maitasunaren erakusle da hori. Zorionak jasoko duzun merezitako omenaldiagatik; guretzat inspirazio iturri izaten jarraituko duzu beti. Erretiroaren alde ona da, orain denbora gehiago eskaini ahal izango diezula hain zoriontsu egiten zaituzten beste hainbat gauzei, hala nola, zaldi lasterketei edo txirrindularitzari. Detalle txiki horiekin erraza da nolakoa zaren jakitea; atsegina, apala eta bihotz onekoa, besteak beste. Hainbeste esfortzu eta denbora eskaini diozun lanbideak bere saria ekarri du, eta senideon izenean, azken gauza bat esatea gustatuko litzaiguke: munduko aitarik onena zara.



JEXU MARI EGIZABAL DANOK KIDE ETA LASARTE-ORIA ALDIZKARIKO KIDEA

Modu garrantzean aurreratu dizute erretiroa, berrogei urtez Lasarte-Oriako korrespondentsal gisa aritu ondoren. Gera zaitetz aintzat hartu zaituen herriak egingo dizun aintzatespenarekin; Lasarte-Oriak eskertzen dizu egunero gertatzen zen guztiaren berri eman izana. Ondo ulertu zenuen herriko korrespondentsalaren ardua zein zen, eta ez duzu etsi gure herriak sortu eta antolatu duen jardueren berri emateko informazio guztia bildu eta azaltzeko ahaleginean. Beste zeregin bati eutsi behar diozu orain; zure artxibo historikoa eguneratu eta Lasarte-Oriaren esku jartzeari.

Eskerrik asko, Txema Lasarte-Oriaren berri emateko egin duzun ekarpenagatik, gure herriaren bitzita eta historia ezagutzeko eman diguzun aukeragatik. Zorionak!



Auzolan saria niri eman didate aurten. Eskertzekoa da hori ere.

Nire kazetari ibilbidean ez dut apenas ekimenik bazter utzi, eta sentitzen dut egin dudana eskertu duela herriak. Ereiten duenak jasotzen duela dio esaerak; hortaz, jasotzen ari naizena zerbait erein dudalako izango dela pentsatzen dut.

Eta dedikazio horrek utzi dizu tarterik sanpedroez gozatzeko? Edo lana baino ez duzu egin herriko jaietan orain arte?

Intentsitate handiz, baina bazterretik bizi izan ditut beti, lanean. Uste dut inkontzienteki egin dudana zerbait izan dela; egitarauko jardueren berri eman behar nien herritarrei, eta hori hala izan zedin lan eta lan baino ez dut egin. Ekimen guzti-guztietan egotea ezinezkoa izan da, baina gehienek berri eman dut beti.

San Pedro Jaietan kazetari gisa lan egitea maratoi bat da. Erabateko dedikazioa eskatzen du, ez dakit jendea zenbateraino ohartzen den hortaz. Lanordu luzeak izaten dira egun horietakoak, baina aurretik egin beharreko prestaketa lana ere ez da makala; eromena.

Eta aurtengo orduan ezberdinak izango direla aurreikusen duzu? Gozamenetik gehiago izango dute?

Zalantzarik gabe. Hasteko aitortzagatik; emozionalki inoizkoak izango dira. Halere, aitortu behar dut ez dudala lana erabat aloratu ezta horretarako asmorik ere. Aritzen naiz tarteka argazkiak ateratzen eta informazioa biltzen, eta aurtengo herriko festekin ere berdina egingo dut; artxibo historikoa osatzen jarraitu nahi dut. Lan egingo dut, baina beste erritmo batera. Gozatuiko dut jardueraz ere bai, noski.

Arxibo historikoa aipatu duzu. Kazetari lanarekin batera, horrekin ere aritu

zara, eta albor eder bat osatu duzu zure bulegoko sotoan.

Beti esaten dut hirugarren alaba bat dudala nire bulegoan: artxibo historikoa. Korrespontsal aritu naizen urteetan egunero ordu erdi edo urdubeteko tartetxoa eskaini diot horri. Lasarte-Oriaz idatzi dudana guztia eta beste lankideek idatzi dutena artxibatzen aritu naiz denbora guzti horretan, eta hori guztia hemen dago, argazkiak ere bai. Sekulako lana da, baina merezi du eta uste dut horri ere eutsi behar diodala. Hau herritarren eskura jartzea da nire ilusioa, gal ez dadin. Horretarako udalarekin hitz egin behar dut gaiaz.

Sanpedroetako ekimenen artean, danborrada berezia da zuretzat.

Txikitatik bizitu dudana jarduera bat da, oso berezia niretzat, bai. Haurren danborradan parte hartu nuen lehenik, hamabi bat urte izango nituen. Aitzindaria izan zen gure herria danborradarekin. 18 urterekin aritu nintzen lehen aldiz helduen danborradan.

Korrespontsal aritzeak ere mugatu du bertan parte hartzeko nire aukera, baina modu batera edo bestera beti egon naiz hor. 1999. urtean hartu nuen barrilak zuzentzeko ardura, hamar urtez aritu nintzen horretan ere. Eta 2008an, berriz, ATLO sortu zen, eta lehen idazkaria izan nintzen. **Lankide izan zaitudan denboran plazera izan da zurekin partekatutako guztia, baina aitortu behar didazu puntualtasuna gutxitan errespetatu duzula. Garaiz iritsiko zara zure omenaldira, ezta?**

Espero dut baietz, baina ezin dut hitzik eman [kar, kar, kar]. Hori ere lan erritmoaren ondorioetako bat izan da. Hainbeste ekimenen berri eman nahi izan dut, ezen horrek denborarik gabe ibiltzea ekarri didala.



MARIA CORTES
KAZETARI LANKIDE OHIA

Etxean erakutsi didate esker oneko izatea beti dela ona eta horregatik, TXINTXARRI-k ematen didan aukera hau aprobetxatuz, zalantzarik gabe zuretzat berezian izango diren San Pedro Jaietan atarian, eskerrak eman nahi dizkizut. 2008ko udazken hartan, Madrilen ikasten eman nituen urtean ondoren Donostiara bueltatu berritan, Lasarte-Oriako kronikan zurekin lan egiteko lehen aukera eman zenidan. Udako bekengatik ezagutzen nuen egunkariaren funtzionamendua, baina asko ikasi nuen zure ondoan. Nik maite nuen udalerrria zen Lasarte, betiko lagun bat bertakoa zelako; beraz, niretzat plazera izan zen bi urte horiek zurekin partekatzea.

Eta nolakoa den bizitza; hamahiru urte geroago, Juanekin batera, erreleboa hartu dizugu. Espero dugu pozik egongo zarela lekukoa guk hartu izanarekin. Gauza askotan ezin izango zaitugu ordezkatu; askok esaten digute Lasarte-Oriaren parte zarela, baina, ziur asko, puntualtasunean nabaritutako dutela aldea [kar, kar, kar].



JAVIER ZATARAIN
ATLO-KO KIDE OHI ETA LAGUNA

Gure arteko adiskidetasuna 90eko hamarkadan hasi zen. Ordurako Lasarte-Oriari bizi nintzen eta zu herriko DVko korrespontsal lanetan aritzen zinen. Garai hartan hedabide horretako Andoaingo korrespontsal grafiko kargua nuen nik 2009. urtean, berriz, ATLOn hasi nintzen, eta bi urte geroago ordezkatu zintudan idazkari lanetan; hala ere, zuk, zuzendari lanetan jarraitu zenuen elkarte horretan. Urte askotan hipodromoan ere bat egin dugu argazkigintzari esker, eta irudiak ere trukatu dizkiogu elkarri. Denbora honetan guztian, pertsona irekia, langilea, kolaboratzailea eta, batez ere, zintzoa izan zarela sentitu dut; inoiz ez duzu aurpegi txarrik erakutsi, nirekin ez behintzat. Egunero jasotzen zenituen eskaera ugari erantzuten saiatu zara urte luzez (erreseinak, oharrak, argazkiak, etab.), eta zure lana kontu handiz egiten ahalegindu zara, dena ondo atera zedin. Zurekin bizitako oso oroitzapen onak dauzkatz, gaur egunera arte mantentzen ditudanak.



OSTADAR ZIKLOTURISMOA
TALDEKIDEAK

Nork esan behar zigun denbora hain azkar igaroko zenik, Txema. Gogoratzen dituzu igandetan bizikleta irteerak egiten hasi gineneko garaiak? Egutegia antolatzen aritzen ginen, bizikleta saioak egitera joateko nagitasunik ez izateko. Pedalari ematen genion bitartean, batzuetan zertxobait sufritzen genuen, baina izaten genituen elkarriketak ere ez ditugu ahaztu... zenbat barre eta adar jotze... ondo pasatzen genuen, ezta? Familia bazkariak antolatzeko tartea ere hartzen genuen. Eta orain, beste fase batean gaude: erretiroan. Zer da hori; aspertzeko, lasai egoteko, bazkariak egiteko nahi adina denbora daukagu orain, beste erritmo batean maite dugunaz gozatzeko aukera. Orain bai, Txema, orain ez daukagu bizikleta bazter uzteko aitzakiarik, beraz, esan nahi dizugu zure zain gaudela!

Ondo-ondo izan eta zorte on bizitzaren etapa berri honetan.



Gora San Pedro Jaiak!
Ondo pasa!

PATXI LARRAÑAGA
ANA IPARRAGUIRRE
NAROA



HARATEGIA · TXARKUTEGIA
Kale Nagusia, 39 LASARTE-ORIA Tel. 943-37 26 68



Duela mende laurden, jaietan...

Artxibo historikoan arakatu eta 1998ko San Pedro Jaietako argazki bitxi ugari topatu ditu TXINTXARRI-k. Aurtengo festak hasi aurretik, 90. hamarkadako azken urteetako irudiekin argazki galeriak sortu eta 'www.txintxarri.eus' atari digitalera igoko ditu



Erzkerrean, gaztetxoan danborrada, Kale Nagusian; eskuinean, Lasarte-Oriako Dantza Soltearen 21. Txapelketa, Okendo plazan. TXINTXARRI



Okendo plaza parean dagoen etxebizitza bloke honetako bizilagunek dotore asko apaindu zuten fatxada, koloretako blusa ugari zintzilikatuta. TXINTXARRI



Urnieta bidean Euskal Herriko II. Goitibehera Ligaren bosgarren froga jokatu zuten. Argazkian ikus daitekeenez, herritarren ikusmina piztu zuen probak. Eskuineko argazkian, Txosnetako Batzordeak Uistin kalean antolatutako gazte afarira joandako bizilagun batzuk. TXINTXARRI



Zezensuzkoek itxi zituzten 1998ko San Pedro Jaiak, Kale Nagusian. TXINTXARRI

MUGICA & ABURRUZA

aseguru artekaritza, S. L.

● IBILGAILUAK

- Motozikletak
- Automobilak
- Autokarabanak
- Furgonetak
- Kamioiak

● MERKATARITZA

- BIZITZA ETA ERRETIROAK
- OSASUNA
- ISTRIPUAK ETA GAIXOTASUNAK

● ERANTZUNKIZUN ZIBILA

- ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK
- INBERTSIOAK
- PYMEAK...

Ganbo kalea, 1 LASARTE-ORIA - Tel.943-36 22 75 & FAXA: 943-37 24 13

Gora Lasarte-Oria!





Argazki lehiaketa



Lasarte-Oriako ekimen bakar edo sorta bat non, TXINTXARRI aldizkariak antolatutako argazki lehiaketa han! Aurtengoari buelta bat eman diogu, eta hastear diren San Pedro Jaien DNAn dauden Sorgin Dantza, erraldoi eta buruhandiak eta kale ikuskizunetan fokua jarri. Horietako bakoitza kategoriatan izango da eta aipatu jarduerekin lotura duten argazkiak egin beharko dituzte partaideek. Multzo bakoitzeko irudi bana (originalak, norberak ateratakoak) aurkeztu ahalko dute herritarrek.

Lehiaketan parte hartzeko azken eguna uztailaren 9a izango da, igandea. Argazkiak bidaltzeko bide hauek izango dituzte parte hartzaileek: txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikoa edo 688 68 35 10 telefono zenbakia, WhatsApp bidez. Botoak emateko epea uztailaren 10etik 12ra bitartekoa izango da, bi egunak barne. Kategoriatan bakoitzeko irudi bozkatuenaren egileak Avenida taberna-jatetxeko bi menu berezi irabaziko ditu. Animatu eta parte hartu!



**SARIAK:
3 MENU BIKOITZ**

Buruhandi eta erraldoien kategoriatan



LOZET elkarteko erraldoiak eta Oaintxe in deu! txaranga, Geltoki kalea zeharkatzen. TXINTXARRI

Sorgin dantza kategoriatan



Sorgin Dantza da sanpedroetako jarduera errotuenetako bat. TXINTXARRI

Kale musika kategoriatan



Artistas del Gremio taldeak joko asko eman izan du argazkietarako aurreko urteetan. TXINTXARRI

Aukera beganoa dugu!

TABERNA

Buenetxea

KAFETEGIA

FESTETAN, ONDO JAN!

- Ogitartekoak • Hanburgesak
- Sandwich-ak • Entsaladak
- Bakailao • Txuleta

DASTATU ERE:

- Batido naturalak • Koktelak
- Gin-tonic bereziak
- Mojitoa • Kaipiroska

Pablo Mutiozabal 2, Lasarte-Oria ! Tel. 943-36 95 08

Ondo pasa HERRIKO JAIETAN!!

Tintorería

Tindategia

Lizardi

Uistin kalea 6
LASARTE-ORIA
610 28 61 05

tintolizardi@gmail.com

Arropa garbiketa eta konponketa



Ondo pasa festetan!



Eraso matxisten aurrean jarduteko udal protokoloa

San Pedro Jaietan gerta daitezkeen eraso matxisten aurkako udal protokoloa aurkeztu dute Lasarte-Oriako Udalak eta Berdintasun Kontseiluak. Jarraibideak zeintzuk diren zehazten du dosierak, besteak beste. Sudergintza kooperatibarekin elkarlanean aurrera eraman dute

Txintxarri

Berdintasun Kontseiluak eta Lasarte-Oriako Udalak aurtengo sanpedroetan gerta daitezkeen eraso matxisten aurrean jarduteko udal protokoloa aurkeztu dute. Sudergintza Berdintasunerako, bakerako, aniztasunerako eta bizikidetzarako ikerketa eta gizarte ekintzarako kooperatiba feministarekin elkarlanean egin dute lanketa.

Sudergintza berdintasunerako, bakerako, aniztasunerako eta bizikidetzarako ikerketa eta gizarte ekintzarako kooperatiba feministako kide Zuriñe Rodriguezek eta udaleko Berdintasun teknikari Irati

Olaetxeak eman dituzte protokoloaren xehetasunak; lanketaren alderdi pedagogikoari egin diote azpimarra nagusia. Azaldu dute begirada horri esker identifikatu dela eraso matxista bat zer den. Dosierra izendatzeko aukeratu duten leloaz ere hitz egin dute gero; hau da: *Jaiak gureak dira*; eta eraso bat gertatuz gero, zer egin behar den ere argitu dute ostean.

Tabernetan gerta daitezkeen erasoak hartu dituzte adibide gisa, eta azpimarratu, horiek nozitzen ari den emakumeari* kasu egitea dela eman beharreko lehen urratsa; hura lagundu eta izan ditzakeen beharrak errespetatu behar direla.

Kontatzen duena zalantzan ez jartzea ere ezinbestekoa dela biltzen du protokoloak, eta gertatutakoaren aurrean, zer behar duen eta konfiantzazko norbaiti deitzea nahi duen galdetzea lirateke jarraitu beharreko hurrengo pausoak. Hala, gaineratu dute erasotzaileari argi utzi behar zaiola eraso matxista bat egin duela, eta tabernetatik joateko eskatu behar zaiola. Lekua uzten ez badu, eta emakumeak* hala nahi izanez gero, tabernariarengana jo behar da; egoera azaldu, eta eraso bat gertatu dela ikustarazteko argiak piztu eta musika itzaltzeko eskatuko zaio. Erasotua leku lasai batera eramatea proposatzen du



Berdintasun Kontseiluko kideak, eta udal ordezkariak udaletxe aurrean. TXINTXARRI

protokoloak gero. Horri dagokionez, eta berrikuntza gisa, jakinarazi dute udaletxean horretarako "gela goxo bat" egokituko dela, eta emakumeak* hala nahi izanez gero, konfiantzazko edo mugimendu feministako kideren batekin egoteko eskubidea izango duela. Lekua isilpean mantenduko da, konfidentzialtasunagatik.

Laguntza eskatzeko zenbait telefono zenbaki ere jarri dituzte herritarren eskura; hauek dira: SOS Deiak (112); Lasarte-Oriako udaltzaingoa (943-36 24 42, 24 orduz) eta Eusko Jaurlaritzako Biktimari Arreta Zerbitzua (900-84 01 11).

Azaldu dute baita ere protokoloa martxan jartzea erabakitzen den momentuan udalak zein pauso jarraituko dituen. Alkateak bozeramaileen batzordea deituko du, eta horrek eraso gaitzesteko eta erasotuari babesa emateko adierazpen instituzional bat onartuko du. Bestalde, eraso gaitzetsi eta biktimari babesa erakusteko elkarretaratze deialdia ere egingo du. Jaiak pasatu ostean, ebaluazio bat egingo dutela ere jakinarazi dute.

Informazio osoa www.txintxarri.eus web atarian kontsulta dezakezue.

MZUBI muebleszubi@hotmail.com
LASARTE-ORIA

Geltoki Kalea 21 LASARTE-ORIA
Tel.: 943-36 24 67

Ondo pasa San Pedro Jaietan eta gozatul

TEJIDOS FERNANDEZ

Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!

Fernández
ehunak

Ondo pasa sanpedroetan!

Kale Nagusia 2 - Tel. 943-36 16 07 - LASARTE-ORIA

txitxardin
BRASA ETA TRADIZIOA

Zatoz sanpedroak gurekin ospatzera!

ZURE OSPAIZUNAK BEREZIAK
IZANGO DIRA GURE JATETXEAN

Ezkontzak | Jaunartzeak | Ospakizunak

CASA HUMADA
Oria Etorbidea, 12 LASARTE-ORIA
943-04 62 97 | 662 06 66 79
info@casahumada.com



Eraso matxisten aurkako protokoloa ere, edabean

Sorgin Jaiak-ek bide orri bat prestatu du aurten ere, Okendo plazako txosna gunea herritar guztientzat "espazio segurua" izan dadin. Puntu more bat jarriko dute eta baita 632 64 98 28 telefono zenbakia ere. Inolako erasorik onartuko ez dutela nabarmendu dute

Txintxarri

Sorgin Jaiak antolatu dituzten sorginek jakinarazi dute eraso matxisten aurrean jarduteko protokolo bat ondu dutela aurten ere, Okendo plazan jarriko duten txosna gunea "espazio segurua" izan dadin hilaren 27tik uztailaren 1era festa alternatiboez gozatzea joango diren pertsona guztientzat. Hori dela eta, erasoren bat jasan edo ikusi duen edonork eremu horretan jarriko duten puntu morera joateko aukera izango du, eta baita 632 64 98 28 telefono zenbakiarekin harremanetan jartzekoa ere. "Jaiak, kaleak eta gauak gureak ere badirela,



Txosna gunea Okendo plazan jarriko du Sorgin Jaiak-ek. TXINTXARRI

festez gozatzeko eskubidea dugula eta inolako erasorik onartuko ez dugula aldarrikatuko dugu", adierazi dute. "Hartu erratzak, jantzi gonak, eta ozen esan dezagun autodefentsa feministaz armatuta gaudela eta gure artean saretzen, babesten eta elkar zaintzen jarraituko dugula".

Erasoak, ugaritzen

Sorgin Jaiak-eko kideek gogoratu dute duela bi hamarkada pasatxo hasi zirela elkartzen, txosna baten bueltan, Lasarte-Oria sorginduko zuen lehen edabea prestatzeko. Ideia, helburu eta aldarrikapen desberdinekin egin zuten errezeta: euskararen erabilera eta herritarren parte hartzea sustatzea, kontsumo eredu eta tokiko ekoizleei buruz hausnartzea, feminismoan oinarritutako aisialdi ereduak sustatzea, eta abar. "Hamaika izan dira akelarre honetan oihukatutako aldarriak".

Edonola ere, nabarmendu dute jaiak antolatzeko bidea beti ez dela izan "algara eta ospakizuna", uste dutelako "argi" ikus daitekeela

Euskal Herrian eta Lasarte-Orian "emakume, trans, bollera, marika, eta, oro har, sexu eta genero disidenteen aurkako erasoak gertatzen direla". Gehitu dute gertaera horiek ez direla isolatuak: "Menderatu, biolentatu eta isilduak nahi gaituen sistema zisheteropatriarkalaren isla gordina baizik".

Ildo horretatik, herritar oro gonbidatu dute hilaren 28ko sexu askapenerako manifestazioan parte hartzera. Lasarte-Oriako Transmaribollo Kolektiboak antolatu du ekintza. Iaz bezala, Okendo plazatik abiatu eta erdigunea zeharkatuko dute, 20:00etatik aurrera.

Protokoloa

- **Puntu morea.** Okendo plazan jarriko dute, txosna gunean bertan.
- **Telefonoa.** Erasorik jasan edo ikusiz gero, 632 64 98 28 telefono zenbakira deitzeko eskatu dute.

LUIS CAR

autobusak

Gora Lasarte-Oria! Gora sanpedroak!

- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak

Uzturre plaza 1, LASARTE-ORIA • Tel./Faxa: 943-36 63 16 • Mugikorra: 629 46 18 97 • luiscarbus62@hotmail.com



Datorrenerako prestatzen

Entseguak, kurso bukaerako emanaldiak, txapelketak, topaketak... Denetarik egiten ari dira eragile eta elkarteak hastear diren sanpedroetarako motorrak berotzeko. Tamalez, bertan behera utzi behar izan du ikuskizuna Erketz EDTk, eguraldi txarragatik



Hilaren 28ko danborrada prestatzen ari dira lasarteoriatarak. TXINTXARRI



Scooter Club Euskadik rallya egin du aurten ere Lasarte-Orian. Erakusketak eta irteerak egin dituzte, besteak beste. TXINTXARRI



Udal Musika Eskolako ikasle talde honek primeran pasa zuen oholta gainean. TXINTXARRI



Mahai jokoen eta igel, pote eta toka txapelketak aurrera eraman dituzte Biyak Bat egoitzako lagunek. Sari guztiak hilaren 26an banatuko dituzte, 18:00etan, elkartearen bertan (Kale Nagusia, 40). Trebetasun eta punteria ederra erakutsi dute. TXINTXARRI



Biyak Bat egoitzako kide ugari animatzen dira gimnastika ikastaroa egitera. Ohi bezala, kiroldegian aurrera eraman dute kurso amaierako erakustaldia. TXINTXARRI

AZPEITIA

Ondo pasa festetan!

Blas de Lezo, 1
20160 LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 18 70
Fax: 943-36 21 79
mueblesazpeitia@gmail.com
www.mueblesazpeitia.com

Ainhoa Egoña Solano

AES

Ile apaindegia

943-37 02 54
Blas de Lezo kalea, 5 behea

LARRE JATETXEA

Asteburuko menua
Eguneko menua
Babarrun-jana
Pinxoak
Ogitaratekoak
Plater konbinatuak

Zatoz sanpedroetan!

Larrekoetxe bidea, 10 LASARTE-ORIA
Tel.: 943-36 10 12 - 679 93 08 95



Cadena Dialeko kideak eta udal ordezkariak Dial al Sol jaialdiaren berri emateko deitutako agerraldian. TXINTXARRI

Dial al Sol jaialdiaz gozatzeko hitzordua

Dial Al Sol jaialdia izango da Andatza plazan etzi, hilak 25. Hamar musikari ariko dira ikus-entzuleen aurrean; horien artean, Lorena Gomez, Gonzalo Hermida, Polo Nandez eta Huecco. Euskotrenek tren zerbitzua zabalduko duela jakinarazi du udalak

Txintxarri

Cadena Dial irratiares musika jaialdiak hartuko du Andatza plaza igandean, hilak 25, eta jarduera horren xehetasunak eman dituzte berriki Lasarte-Oriako Udalak eta Cadena Dialeko ordezkariak. Iragarri dute emanaldiak 21:30ean hasiko direla, eta bi ordu eta erdiko emanaldia osatuko dutela denen artean.

Iazkoa izan zen lehen esperientzia, hortaz, bigarren aldia izango du aipatu jaialdiak aurtengoa. Eguraldiari begira jarri dira denak. Gogoratu dute iaz sekulako euri jasa bota zuen arren ekimenarekin aurrera

egitearen aldeko apustua egin zutela. Aurten, berriz, eguraldi eguzkitsua espero dute.

Nabarmendu dute musika ibilbide sendoa duten artistak, eta hasi berriak direnak entzuteko aitzakia ederra dela Dial al Sol egitasmoa, eta gaineratu, sanpedroetarako motorrak berotzeko ere aitzakia bikaina dela.

Mari Jose Aranguren Cadena Dialeko ordezkariak eskerrak eman dizkio udalari beste urtebetez ekimena Lasarte-Oriara ekartzeko egindako apustuagatik, eta kontatu du musika emanaldi hutsak baino gehiago izango direla: "Erabat

zabaltzen den trailer bat oholta bihurtuko da, eta musikaz gain, argiztapena ere garrantzitsua izango da".

Hauek dira Andatza plazan arituko diren musikariak: Lorena Gomez, Gonzalo Hermida, Polo Nandez, Huecco, Farga, Hilario, Lagarto Amarillo, G Face, Nerea Rodriguez, Lorreine.

Tren zerbitzu bereziak

Dial al Sol jaialditik bueltatzeko zenbait zerbitzu berezi jarriko ditu Euskotrenek, hala jakinarazi du udalak, nahiz eta zabalkunde hori zein ordutik zein ordutara izango den ez duen oraindik zehaztu.

Sanpedroak hasi bitarteko urduritasuna baretzeko, aurrekariak

Herriko eragile ugariak jarduerak aurrera eramango dituzte San Pedro Jaiak hasi bitartean.

- **Hilak 23, ostirala, 21:30etik aurrera:** San Joan bezpera ospatuko dute. 21:30ean abiatuko dira udal ordezkariak udaletxe zaharretik Andatza plazarantz, dantzariekin batera. Behin hara iritsita, San Joan Zortzikoa eta Sokadantza dantzatuko dituzte, Alboka Abesbatza eta Zero Sette Akordeo Orkestrarekin batera. 22:00etan sua piztuko dute.
- **Hilak 24, larunbata, 10:30ean:** Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroak antolatutako zunba maratonia hasiko da. Okendo plazan egingo dute.
- **Hilak 24, larunbata, 19:30ean:** Alboka Abesbatzak ikasturte amaierako kontzertua emango du Ama Brigitarren komentuan. 35 urte betetzen ditu eta hori nabarmen aldera egitarau berezi bat prestatu du. Sarrera doakoa da.
- **Hilak 25, igandea, 09:00etatik aurrera:** LOTME elkarteak Familien II. Mendi Ibilaldia aurrera eramango du. Partaideak Okendo plazatik atera eta Buruntza mendira igoko dira. 15:00ak baino lehen helmugaratu beharko dute.
- **Hilak 25, igandea, 09:00etatik aurrera:** Taula Xake Klubak antolatuta, Adiskidetasunaren II. Taula Xake Lehiaketa egingo dute Mirentxu alboan dagoen trinketean, 15:00ak arte.
- **Hilak 25, igandea, 13:00etan:** Zero Sette Akordeo Orkestrak kontzertua emango du. Kideek jakinarazi dute pop rock abestiekin osatu dutela errepertorioa. Sarrera doakoa da.
- **Hilak 25, igandea, 21:30ean:** Dial al Sol jaialdia egingo dute Andatza plazan. Hamar musikari ariko dira ikus-entzuleen aurrean: Lorena Gomez, Gonzalo Hermida, Polo Nandez, Huecco, Farga, Hilario, Lagarto Amarillo, G Face, Nerea Rodriguez eta Lorreine. Sarrera doakoa da.
- **Hilak 26, astelehena, 18:00etan:** joko eta txapelketen sariak banatuko dituzte Biyak Bat elkarteak kideak, udal ordezkariarekin batera. Ostean, luntx bat egingo dute.

EKAINAREN 24AN, 19:30EAN. AMA BRIGITARREN KOMENTUA
24 DE JUNIO, 19:30. CONVENTO DE LAS RRMM BRIGIDAS

Ondo pasa festak!
zerbitzu mistoa

Lucia ile-apaindegia
Kale Nagusia 67, LASARTE-ORIA ☎ 688 85 17 50

GESBOX LASARTE

OSTALARITZA ETA SALTOKIETAKO EKIPAMENDU INSTALATZAILEETAN ESPEZIALISTAK

PLAZA ARALAR, 1 | LASARTE-ORIA
TEL.: 943-37 13 13
www.gesbox.net

Software Neron

INBENTARIOA

DELIVERY

TAKE AWAY / TPV2

KOMANDAK / TPV

KARTA DIGITALA

SUKALDEA PANTAILA/ INPRIMAGAILUA

KUDEAKETA



Udalbatza berriko hamasei kideek eta alkateak talde argazkia atera zuten batzarra amaitu eta gero. TXINTXARRI

Agustin Valdiviak segiko du alkate izaten

PSE-EEko zerrendaburuak hartu du aginte makila. Udalbatza parekidea izango da berriz ere, zortzina emakumezko eta gizonezko osatua. Asier Gorostegi eta Oihan Agirretxe (EH Bildu), Anne Ugarteberu eta Goizane Pildain (EAJ) eta Manuel Palacio (PP) dira aurpegi berriak

Txintxarri

Gainerako udalerrietan bezala, Lasarte-Oriako udalbatza berria eratzeko bilkura hilaren 17an egin zuten, larunbatez. Lepo zegoen aretoa. Lehen urratsa adineko mahaia eratzea izan zen: Miguel Angel Tolosa (Elkarrekin Podemos) da zinegotzi zaharrena, eta gazteena, Anne Ugarteberu (EAJ). Karguak hartu eta lepokoak jantzi ostean, banan-banan deitu zituzten gainerako hautetsi guztiak gauza bera egin zezaten.

Alkatea hautatzeko bozketari ekin aurretik EAJko alkategaiak uko egin zion hautagai izateari. Hala, berriz, ere, banaka deitu zituzten hamazazpi zinegotziak eta areto erdian jarritako kutxa

barruan utzi zituzten gutunazalak. Denak bertan zeudenean, adineko mahaieko kideek zabaldu eta botoak irakurri zituzten: zazpi jaso zituen Agustin Valdiviak (PSE-EE), eta Esti Garmendiak (EH Bildu), berriz, bost. Zuriak izan ziren gainerakoak. Hortaz, hauteskundeetan boza gehien jaso zituen alderdiko hautagaia aldarrikatu zuten, Valdivia alegia. Kargua zin egin eta Tolosaren eskutik jaso zuen aginte makila.

"Lan handiko" agintaldia

Hautatu dutenei eta azken hiru urte eta erdian babestu dutenei eskerrak eman eta gero, datozen "lan handiko lau urteetan"

elkarlanean aritzeko gonbita luzatu zien gainerako alderdiei. Ohartarazi zuen "irekia" egongo dela herritarren bizitza hobetuko duten gaitetan aritzera.

Bestalde, Garmendiak zoriondu egin zuen Valdivia eta eskerrak eman zituen EH Bilduk jasotako botoengatik, inoiz baino gehiago. "Lasarte-Oria egiten jarraituko dugu herrigintzan, udalgintzan, eragileengandik gertu; klabe horietan lan egiten baduzue, bidean topatuko gara". Asmorik ez bazuen ere, Antxordokik hitz egin zuen azkenean eta eskerrak emateaz gain, abiatu berri den legealdia "ona" izango dela uste duela onartu zuen.



TXINTXARRI

Borrokan jarraituko dute

Aurreko egunetan sektorekako lanuzte batzuk egin eta gero, Michelin Lasarteko beharginak kalera atera ziren berrito hilaren 19an, hitzarmen "bermedun" baten alde borrokatzen jarraitzeko asmoa dutela adierazteko zuzendaritzari. Enpresa batzordeko kideek jakinarazi zuten, lantegiaren ekoizpena erabat geratu zuen grebak, duela bi asteoak bezalatsu.



DANI BLANCO / ARGIA

Mehatxatu dituztela salatu dute

Argia hedabideko lantaldeak agerraldi bat egin du honakoa salatzen: Solway Investment Group izeneko multinazionalak eskatu diola Paolina Albani kazetari guatemalarrari egindako elkarrizketa kendu eta 15.000 euro ordaintzea. Hori betetzen ez badu, epaitegietara eramatearekin mehatxatu du.

"Ez dugu elkarrizketa ezabatuko", erantzun dute Argia-koek. "Ez dizuegu dirurik ordainduko eta, gainera, gaiaz informatzen jarraituko dugu".

ANTONIO URRUZOLA

Ondo pasa festetan!

Etor zaitez
erakusketa
ikustera!

ZURGINTZA eta EBANISTERIA

Asteasuain poligonoa, 3. pabilioia USURBIL
Tel./Faxa: 943-37 64 15 Mugikorra: 687 84 55 99
www.carpinteriaantoniourruzola.com

pikabea

ASEGURU ARTEKARITZA

Seguro mota guztiak.
Eskatu aurrekontua!

San Pedro zoriotsuak
opa dizuegu!

Uzturre Plaza, 8
Lasarte-Oria
Tel.: 943-37 11 18
pikabea@pikabeaasegurua.com



✓ Higienea bermatua

HITZORDUA HARTU!
943-84 19 72 | 672 71 72 06

Ondo pasa sanpedroetan!
Kale Nagusia, 2 Lasarte-Oria



Ezker-eskuin: Inge Mendioroz, Idoia Garzes, Isa Fernandez de Agirre, Idoia Telleria, Uxune Iparragirre eta Ione Zabala. TXINTXARRI

Emakume ahotsa duen herriaren historia bat

'Lasarte-Oria: istorio zumez egina' dokumentala aurkeztu du Ihitten elkarteak, bere orain arteko lan "kuttunena". Lana ikusi ezin izan duten herritarrek uztaillaren 20an izango dute horretarako aukera, 22:00etan, Okendo plazan, udako zinema zikloaren barruko emanaldian

Txintxarri

Ihitten elkarteak *Lasarte-Oria: istorio zumez egina* dokumentalaren estreinaldia egin zuen hilaren 18an eta kultur etxeko auditorioko beheko aldeko eserleku guztiak bete zituzten lana ikusi nahi zuten herritarrek, artean, dokumentalean bertan agertzen diren emakumeetako batzuek. Urduri eta hunkituta aurkeztu zuten kideek euren taldea eta dokumentala bera, "gure lan kuttuna". Hiru belaunalditako dozena bat emakume elkarrizketatu dituzte, beraien bizitza kontatu eta Lasarte garai batean nolakoa zen azaltzeko batetik, eta gaur egunera arte izan duen bilakaerarekin alderatzeko,

bestetik. Hori egin bitartean gai ugari jorratzen dituzte protagonistek: herriaren identitatea, emakumearen papera, euskara, eta abar. Ekarpene horiek, zumearekin bezala, ehundu egin dituzte sortzaileek, herriaren historia osatuz. Eskerrak eman zizkieten guztiei parte hartu izanagatik, oraindik kontatu gabe dauden hamaika historiak jasotzeko nahia ere adieraziz.

Udako zinema zikloa

Esku artean duzuen aldizkari hau inprentara bidaltzen ari ginen bitartean bigarren proiektio bat aurrera eraman zuten Ihittenekoei, Antonio Mercero gunean. Ostean, ikus-

entzunezkoan lekukotzak eman dituzten emakumeetako birekin tertuliatxo bat egin zuten bertaratutakoek.

Orain arte dokumentala ikusterik izan ez dutenak ez daitezela larritu, hirugarren emanaldi bat prest dutelako Ihittenekoei, Okendo Zinema Taldearekin elkarlanean. Udako zinema zikloaren barruan aurrera eramango dute, uztaillaren 20an, ostegunarekin, 22:00etan, Okendo plazan.

Ihittenekin harremanetan jarri nahi dutenek elkartearen webgune estreinatuta berriaren bidez egin dezakete kontaktua: <https://ihitten.eus> da atari digitalaren helbidea.



XUMELA KORUA

Entseguak bukatu dituzte

Xumela koruak amaitu ditu aurtengo ikasturteko prestaketa saioak, baina horrek ez du esan nahi oporrak hartu dituztenik. Izan ere, hastear diren sanpedroetan entseatutakoa praktikan jarriko dute. Hilaren 29an kantu eta dantza jira egingo dute Oaintxe in deu! txarangarekin batera, Sagardotegi kaletik abiatuta, 11:30ean hasita. Erdigunean barrena ibili, eta 13:00ak aldera iritsiko dira Okendo plazara, Sorgin Jaiak-en Bizipozaren Akelarrea jardueran parte hartuz. Bestalde, uztaillaren 16ko Oriako Karmengo jaietan ariko dira, eguerdian.



TXINTXARRI

Ilunabar literarioa egin dute

Bergarako Idazle Eskolako zenbait ikaslek Hatsa elkartearen aurtengo olerki bildumako pasarte batzuk partekatu dituzte ikus-entzuleekin, Ttakunenea elkartearen. Ondoren, aurtengo Santa Ana parodiako eszena bat irakurri dute aktore, gidoilari eta antolatzaile batzuek. Julen Basterra gitarra jotzaileak girotu du ekitaldia. Amaitzeko, mokadutxo bat jan dute partaideek.

%30eko
DESKONTUA
eguzkitako
betaurrekoetan



IRIGOYEN

OPTIKA

Ondo pasa eta gozatu festak!



Largoenea 1, Lasarte-Oria - Tel. 943-37 10 47



Naroa Furundarena, Euskadiko txapelkun

Lasarte-Oriako atletak Euskadiko txapelketa lehiatu dute, hilaren 17an eta 18an, Gasteizen. Herritarrak kideak ederki jardun dira; Ostadarreko kideek marka pertsonalak ondu dituzte eta Furundarenak urrezko domina lortu du jauzi hirukoitzean

Txintxarri

Gasteizen jokatu da maila absolutuko Euskadiko txapelketa hilaren 17an eta 18an. Lasarte-Oriako ordezkariak izan da bertan lehiak. Finalak jokatu, lehen hamarren artean sailkatu, markak ondu eta domina bat ere ekarri dute herrira atletak, urrezkoa.

Naroa Furundarenak jantzi du Euskadiko txapela jauzi hirukoitzeko proban. Saiotan nagusi izan zen herritarra. Lehen saiakeran egindako 12,67



Furundarena, lehiak. OSTADAR ATLETISMOA

markarekin lortu zuen garaipena atletak.

Nabarmentzekoak dira talde urdin-beltzeko kideek jaurtiketa probetan lortutako markak ere. Aiala Ramosek seigarren postua eskuratu zuen xabalina jaurtiketa proban, 30,22 metroko jaurtiketarekin, eta bere marka ondu zuen.

Oihana Igarrikerekin ere postu berean amaitu zuen disko jaurtiketa proba. Igarrikerekin 34,69 metrora iritsi zen eta bere marka pertsonala berriro zuen.

Jauzi probetara itzuliz. Enara Gonzalez ere seigarren (5,26 m.) izan zen luzera jauzi proban; eta Alex Alkainek (5,94 m.) eta Oinatz Almagrok (12,17 m.) markak egin zituzten luzera jauzi eta jauzi hirukoitzean, hurrenez hurren.

Lasterketa probetan, izan ziren gainerako herritarrak. 5.000 metroko lasterketako bosgarren postuan amaitu zuen Aloña Mendiko Presak (15.31,08) eta Real Sociedad taldeko Yeray Varelak 100 metroko lasterketarako finaleko txartela lortu arren, ezin izan zuen azken saio horretan parte hartu.

Galizian ere primeran

Galiziako txapelketan Maider Rekondok disko jaurtiketa proban parte hartu zuen eta lehen postuetan izan zen. Galiziarra ez denez, herritarrak ezin izan zuen finala jokatu ezta domina jantzi ere. Hala ere, 38,51 metrora iritsi zen eta probako hirugarren markarik onena egin zuen.

Alebinak bikain lehiatu dira Gipuzkoako txapelketan

Domina eta marka uzta mardula eskuratu dute Buruntzaldea IKTko igerilari gazteek Oñatin

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko Iñaki Garcia, Mario Amantegi, Ibon Elola, Oihan Matute, Kimetz de La Cruz eta Itxaso Iparragirre alebinek Oñatiko kiroldegian lehiatu zuten euren mailako Gipuzkoako txapelketa hilaren 17an eta 18an.

Primerako lana egin zuten igerilari gazteek eta guztiak parte hartu zuten probetan euren

markak ontzea lortu zuten. Guztira 26 marka pertsonal berri ezarri zituzten.

Horrek lehen postuetan egotea ekarri zuen; hogeita bat domina jantzi zituzten. Bakarkako saiotan bost urrezko domina, zilarrezko eta brontzezko bina eskuratu zituzten. Erreleboetan, aldiz, mutilak 4x100 m. lau estiloetan garaile izan ziren eta



Buruntzaldea IKTko alebin mailako igerilariak, Iñaki Garcia aurrean dagoela. BURUNTZALDEA IKT

txapelkunorde 4x100 m. eta 4x200 m. probetan.

Sailkapen orokorrari dagokionez, Iñaki Garcia laugarren postuan amaitu zuen lehia, hirugarrenarengatik puntu gutxira eta mutilen taldea txapelkunorde izan zen.

Horrez gain, Espainiako txapelketarako gutxieneko berria ere eskuratu zuen Garcia, 200 m. bizkar probakoa eta 100 m. libreko marka egitetik gertu geratu zen. 4x100 m. erreleboa ere balentria lortzeko gutxira amaitu zuen.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

IGERIKETA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTko zein herriko infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak Gipuzkoako txapelketa lehiatuko dute.

Larunbata eta igandea. Azpeitiako kiroldegian.

EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTko alebin mailako lau igerilariak Euskal Herriko txapelketan parte hartuko dute.

Larunbata eta igandea. Anaitasuna kiroldegia, Iruñea, Nafarroan.

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire igeriketa egokitutako Espainiako klub txapelketan lehiatuko da

Larunbata eta igandea. Cadiz, Andaluzian.

PILOTA

SAN PEDROETAKO TXAPELKETA

Esku pilotako sanpedroetako txapelketako ligaxkako azken jardunaldia jokatuko da.

Larunbata. 10:30. Loidibarren pilotalekuan.

XAKEA

ADISKIDETASUNAREN TXAPELKETA

Adiskidetasunaren II. Taula Xake Kluba txapelketa lehiatuko dute.

Igandea. 09:00. Trinketean.

MENDIA

FAMILIA MENDI IBILALDIA

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarrean antolatuta Familia Mendi Ibilaldia egingo da Buruntza mendira.

Igandea. Goiza. Okendo plazan.

SQUASHA

FINALAK

33. Squash txapelketako finalak - kontsolazioa eta final nagusia - jokatuko dira. Sailkapeneko 3. eta 4. postuak ere jokoan izango dira.

Larunbata. 15:00. Maialen Chourraut kirol.

ARRAUNA

KAE 2

Gaizka Ormazabal kide duen Hibaikak KAE 2 ligari hasiera emango dio Mutrikuko VII. Yurrita group probarekin.

Larunbata. 17:00. Mutrikun.

TRIATLOIA

DONOSTIAKO TRIATLOIA

Herriko kirolariak Donostiako Triatloia Onditx Oroituz proban lehiatuko dira.

Igandea. 09:15. Donostian.



Ondo ospatu San Pedro Jaiak eta disfrutatatu!

ZUBIETA MOTOR

- Mekanika eta karrozeria konponketak
- Auto erdiberri, erabili eta 0KM salmenta





Gimnastikako eta judoko erakustaldiak egin zituzten adin ezberdinetako kirolariak. Txikienek ederki gozatu zuten. TXINTXARRI



Gimnastika eta judo saileko sarituak. LOKE

Jardunean denboraldiari agur esan dio LOKEk

LOKEren gimnastika eta judo ataletako kideek Maialen Chourraut kiroldegian urtean zehar ikasitakoa erakutsi diete euren senide eta lagunei. Kirol elkarteko kideak denboraldi amaierako bazkarian batu dira aurten merezimenduak egin dituzten kirolariak saritzeko

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkateko (LOKE) kideek era ezin hobean eman diote amaiera denboraldiari.

Gimnastika saileko kideek euren trebezia erakutsi zuten hilaren 10ean, ikasturte amaierako erakultaldian. Bakarka, taldean, tresnekin edo gabe, prestatutako ariketak aurrera eramane zituzten harmailak bete zituzten senide eta lagunaren aurrean. Aurkezpenetan, euren kirolaren gaineko datu historiko eta

esanguratsua ere aipatu zituzten. Egun bat geroago, aldiz, judo sailak hartu zuen eta hainbat ariketa egin dituzte: Borrokarako teknikak, erorketak, oin judoa...

Erakustaldi horren ostean, LOKEko atal ezberdinetako 60 bat kide Atxega jatetxean bildu ziren. Bazkaldu eta atalek euren kirolariari sariak banatu zituzten, oroigarri bereziren bat ere izan zen; lehiaketa utziko duen Garazi Gomezena, kasu.

Racing de Santander, garaile Jose Martija oroimenezkoan

UEFAko finala jokatu du Texas Lasartearrako alebin taldeak; ezin izan du Martutene garaitu, ordea

Txintxarri

Futbola izan zen nagusi hilaren 17an Michelin Kirol Gunean. Jose Martija VI. Futbol Txapelketa jokatu zuten alebinen lehen mailako hamabi taldek: Lasarte-Oriako Ostadar SKT eta Texas Lasartearra, Añorga, Antiguoko, Real Union, Vasconia, Martutene, Euskaldunak, Kostkas, Real

Sociedad, Eibar eta Racing de Santander.

Lehen bi partidak hasi baino ordu erdi lehenago, Gorka Brit jokalaria ohiari omenaldia egin zioten, bere ibilbidea aintzatesteko.

Hiru multzotan banatu eta ligaxka jokatu zuten goizean. Bazkaltzeko etenaren ondoren,



Finaleko neurketako eta Gorka Briti egindako omenaldiko irudiak. TXINTXARRI

bigarren zatian ekin zioten Champions League eta UEFA kanporaketak eta bi finalak jokatu.

Goizean zehar beroa nagusi izan bazen, arratsaldeko ekaitzak pixka bat aztoratu zituen antolatzaileen asmoak, baita

ordutegian atzerapena eragin ere. Hala, sari banaketa pilotalekuan egin zuten.

Talde guztiek jaso zuten domina, askaritarako zerbait eta kopa. Azken horiek banatu zituzteneko bat Realeko atezain ohi Luis Arconada izan zen, sari nagusia Nieves Lopezek, Jose Martijaren alargunak eman bazuen ere. Racing de Santanderreko jokalariei izan zen aurtengoan ere, hain zuzen ere, Champions League delakoaren irabazlea.

UEFAkoan, berriz, Martutene izan zen nagusi, Texas Lasartearra herriko taldea garaitu baitzuen finalean.



**FOTOKOPIAK
TXURI BELTZEAN ETA
KOLORE DIGITALA**

- Koadernaketak
- Plastifikatuak
- Bulegoko materiala
- Material informatikoa

**Ploterra, eskanerra
eta planoen kopiak**

Ondo pasa festak!

Kale Nagusia, 34 behe 1 • Lasarte-Oria
Tel.: 943-36 69 30 - Faxe: 943-36 69 31 | copilasarte@gmail.com

SUGATE

SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma-armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



Ondo pasa festak!

Pintore kalea, 5 Lasarte-Oria | Tel: 943-36 14 71 | www.sugatecocinas.com



"Helburuak bete ditut; espero ez nituenak ere"

IRAIA IPARRAGIRRE ARGANDOÑA REALEKO JOKALARI OHIA

Zortzi denboraldi Realean jokatu ostean, futboleko botak utzi ditu Lasarte-Oriako jokalaria. Momentu gogoangarriak bizi izan ditu, hala nola, Kopako Erregina irabaztea

Nerea Eizaguirre

Ostadarren futbol jokalaria bezala bere lehen pausoak eman eta Añorgan ondu ostean, Realean zortzi denboraldi egin ditu Iraia Iparragirre Argandoña (Lasarte-Oria, 1995) herritarrak. Duela hilabete futbol profesionalari agur esan zion talde txuri-urdineko kapitainak. Milaka bizipen daramatza berarekin, "onak eta ez hain onak", eta "pozik eta lasai doala" onartu du berarekin izandako solasaldian. **Pozik zaude futbolean egindako ibilbideaz?**

Nire helburuak bete ditut, espero ez nituenak ere bai. Espero ez nituen momentuak, egoerak, bizi izan ditut eta horiek nirekin batera datoz motxilan; onak eta ez hain onak. Esan behar dut gauza ez hain onenetatik ere ikasgai positibo asko ateratu ditut.

Zortzi denboraldi egin dituzu Realean, baina ezustekoz iritsi zinen taldera.

Ez nuen espero. Añorgako azken urtean mendiko kirolak eta eskalada egiteko kurso bat hasi nintzen prestatzen. Banekien futbolarekin ezingo nuela uztartu zeren eta kanpora denbora asko joan beharko nintzen. Eta dagoeneko erabakia nuen futboleko azken denboraldia izango zela. Baina lagunekin



Iraia Iparragirre, Kopako Erregina irabazi ostean herrian egindako harreran. TXINTXARRI

zerbait hartzen ari nintzela, Realeko Garbiñe Etxeberriak deitu zidan hurrengo denboraldian nirekin kontatzen zutela esanaz. Momentuan, pentsatu behar nuela esan nion.

Futbola uztea erabakia nuen, baina trenea behin bakarrik pasatzen da eta nire ametsa Realera iristea zen. Ikastolan nengoenen

Zubietako zelaiak ikusi eta 'nik hor bukatu nahi dut' nuen buruan. Gurasoekin, familiarekin eta gertuko jendearekin barneak hustu eta baiezkoa ematea erabaki nuen.

Momentu gogoangarriak bizi izan dituzu Realeko jokalaria bezala, Erreginaren Kopa irabaztea izan da garrantzitsuenak?

Nik beti esan dut, Erreginaren Kopa irabaztea oso garrantzitsua izan zen niretzat eta oso oroitzapen polita dut. Jokalarion helburu bakarra jokatzea eta jokatzen disfrutatzea da. Hori lortu nuen Erreginaren Kopako finalean. Gauza asko, faktore asko batu ziren; familia eta lagunak egon ziren... Beste oroitzapen pila bat ere baditut nabarmentzeko, baina hori da gogokoena.

Azpimarratzeko beste alderdia heziketa pertsonala izan da; irabazi edo ikasi ditudan gauza asko daude. Horri ere garrantzia handia ematen diot.

Denboraldiko azken neurketan, Madrilen aurka jokatu ostean omenaldia egin zizuten. Nola bizi izan zenuen?

Omenaldi hunkigarria izan zen. Momentuan, 'hainbeste gauza egin al ditut horrelako omenaldi puska egiteko?' galdetzen nion neure buruari.

Nire ingurua ere oso zoragarria da. Esker onekoa ni, horrelako ingurua izateaz, horrelako zaleak ondoan izateaz, taldekideak... Realak eman didan guztiagatik oso eskertua nago.

Familia eta kuadrilla ere bertan izan ziren. Mugarri izan dira zuretzat.

Noski, dudarik ez. Eskerrak egon diren eta dauden. Azkenean politena zelaian ikusten da edo tristura hori guztia etxean askatzen da. Eta horrelako momentuetan familiak, lagunak... irekitzen zizkidaten begiak eta niretzat funtsezko izan dira.

Zure lesioa izan da horietako tristura momentuetako bat?

Lesioa bat duzunean eta badakizunean zer den, zein izango den osatzeko epea... primeran doa. Baina nire kasuan estropezuka bezala joan naiz.

"Hau dela uste dugu", baina ez zen hori eta horrek prozesua luzatu zuen, gero berriro puskatu nuen orkatila... Eta horrelako egoera batean burua sendo izan behar duzu. Momentu txarretatik ere jakin behar da ateratzen.

Hori izan da futbola uztearen arrazoietako bat?

Lesioa dela eta, momentu asko izan ditut bakardadean hausnartzeko. Psikologikoki ez da erraza izan. Galdera asko egin nizkion nire buruari, begiak ireki eta bizitza futbola bakarrik ez zela esan behar izan nion nire buruari. Horren ondorioz, nuenaz gozatu, eta sentitzen nuenaren arabera, erabakia hartuko nuela adostu nuen.

Gabonen ostean, "aire berriak nahi dituzu eta beste talde batera joan edo zer?" hasi nintzen buruari galdezka. Baina bizitzak beste mila gauza dituela uste dut, futbolarekin bat ez datozenak eta horiek bizi nahi ditudala erabaki dut. Klubari helarazi nion erabakia eta ados agertu zen.

Ez daukat tristuratik; erabakia hartu dut eta lasai nago. Eta lasaitasun hori izatean, erabakia ona izan dela uste dut.

Eta orain, zer?

Orain erritmoa jaitsi nahiko nuke. Betebeharrak gabeko gauzak egin nahi ditut. Futbola jokatzean ezin nituen gauza batzuk egin; ezin nintzen mendira joan... Esmatu eta zer egingo dudan erabakitzea plazera da.

Udara pasata nire lan mundua edo ikasketak bideratu nahiko nituzke. Proiektuak ere baditut buruan.

Elkarrizketa, osorik,
www.txintxarri.eus atarian

INPRENTA
offset eta digitala

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU EDITORIALA

aldizkariak
IRUDI KORPORATIBOA

kartelak
ESKU-ORRIAK

katalogoak
AGENDAK EGUTEGIAK

koadernoak

PAPELERIA

liburuak

antza

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA · Tel. 943 370 738 · info@antza.eus · www.antza.eus




KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Izei
Dagoeneko laugarren buelta eguzkiari! Zorionak zure familiaren eta lagun txoen partez. Ederki ospatu gaur suaren inguruan. Askok maite zaitugu!



Lorea
Zorionak Loretxu zure 12. urtebetetzean ama, aita eta Oihanaren partez. Askok maite zaitugu!!!!

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 23	ACHA-ORBEA	EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 24	LASA	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 25	LASAE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 26	URBISTONDO	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 27	DE ORUE	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 28	GANDARIAS-URIBE	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 29	LASA	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
OSTIRALA, 30	DE MIGUEL	GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21
LARUNBATA, 1	GIL	
IGANDEA, 2	GIL	GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
ASTELEHENA, 3	GIL	K. Aizpuru Odriozola:
ASTEARTEA, 4	ACHA-ORBEA	Latxumbe Berri 11, Hernani.
AZTEAZKENA, 5	URBISTONDO	943 33 60 77
OSTEGUNA, 6	GANDARIAS-URIBE	

URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

OHARRA

La Esperanza elkarteko kideen urteko batzarra

La Esperanza elkarteak bertako kideei dei egiten die igandean, hilaren 25ean, Basaundi Bailerako 8 baxuan dagoen lokalean egingo den urteko batzar orokorrera gerturatu daitezten.

Bi deialdi daude eginak; lehenengoa ohiko bilera, goizeko 10:00etarako aurre ikusi dute, eta bigarren ezohikoa, berri, goizeko 10:30erako. Elkartetik jakin araztera eman dutenez, honako gai ordena jarraituko da: aurreko aktaren irakurketa eta onarpena, kudeaketa balantzea, batzorde kide berrien izendapena, eta amaitezko, eskariak edo galderak egiteko tarte bat ere izango dela aurreratu dute elkarteko kideek.

Tourreko porra egiteko egunak

Ostadarreko txirrindularitza porra egiten duten herritarrek adi egon beharko dute hurrengo egunetan; uztailaren 1ean, Le Tour de France txirrindularitza itzulia hasiko da Bilbon.

Ostadar SKTk egun batzuk lehenago ohiko tabernetan porra egiteko zerrendak eta boletoak banatuko ditu eta webgunean ere egiteko aukera abiaraziko du. Uztailaren 2ra arte bete ahalko dira txartelak.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA**ERRENTAN EMAN**

Bi neska gazte gara eta pisukide bila gabiltza. Etxea Zabaleta auzoan dago, 70 m2 ditu eta alokairua hilabetean 200 euro dira (gastuak aparte). Interesa baduzu deitu mesedez telefono honetara: 663 93 51 76 (Irati)

LANA**ESKAINITZA**

Jalgi Kafe Antzokiak zerbitzaria behar du, astean 20 orduz lan egiteko eta, ahal dela, berehala hasteko. Harremanetarako zenbakia, 696 55 29 25.

Zientzia arloak, ingelesa zein pintura eta manualitateak gaik eskainiko dituzten irakasleak behar dira ikasturte osorako. Interesatuak bidali CVa info@zitek-akademia.com helbidera.

Jornada erdian etxea garbitu eta sukaldatzen emakume euskaldun baten bila gabiltza. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644 11 61 22.

ESKARIA

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egiteko nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egiteko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egiteko nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egiteko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gazte 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketara...) FP-2 mekanizatua egina dut. Zubietan bizi naiz. Harremanetarako zenbakia, 602 082 583.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. Harremanetarako zenbakia, 602 082 583.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

Katua galdu da

Irudian dagoen katua galdu da Zabaleta auzoan. Mixi du izena; arra da, begi urdinak ditu eta pixkat ezabela da. Ikusten baduzue deitu, mesedez, 661 52 11 69 zenbakira.



txintxarri

www.txintxarri.eus**Argitaratzailea**

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Nerea Segura, Liemii Rekondo
eta Aizpea Amas.

Banatzaleak:

Sergio Hernandez, Ander Hazas,
Nikola Iraola, Xuban Urdalleta, Iñigo
Garcia, Egoitz Epelde, Gorka Morales
eta Endrika Merchan.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4, behea
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

**txintxarri**Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz**Zure iragarkia jarri nahi duzu?
Jar zaitez gurekin harremanetan!****Deskontu bereziak herrikoentzat!**ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66 

LASARTE-ORIA

GORRA SORGIN JAIK
ETA SAN PEDROAK!• Ekainaren 28tik uztailaren 1era **afariak emango ditugu; errazioak eta bokatak.**• Ekainaren 29an eta uztailaren 1ean **menu berezia** izango dugu.• Gainerako egunetan, bazkaltzeko **eguneko menua**, beti bezala!**8. URTEURRENA**
LASARTE-ORIATARREN
IKUSMEN OSASUNA ZAINTZENDeskontu handiekin ospatuko
dugu, aprobeitza itzazu!

R.P.S. 91/20

Kale Nagusia 15

943 377 456

LASARTE - ORIA

**MULTIÓPTICAS****bertako**
igogailuak | ascensores**HARRO!**www.bertako.eus



Ondo pasa San Pedro Jaietan!

Uraitz, s.l.



Igeltseritza Orokorra

• BARRUKO BERRIKUNTZAK

• TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAI-LEAREKIN. VIPEQ F08 (EMULTSIOZ BOTATAKO ARTELAZKIA) ETA S.A.T.E. SISTEMA

• GREMIOEN KOORDINAKETA KOSTU GEHIGARRIRIK GABE

• BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA DUTXA EXTRALAUARENGATIK EGUN BAKARREAN

Telefonia

693 05 93 92
943-56 66 40

uraitz@uraitz.com

www.uraitz.com

BULEGOA:

HIPRODOMO ETORB. 10 BEHEA 3
LASARTE-ORIA

Maitte



ETELU

Ondo pasa festetan eta asko disfrutatu!



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen administrazioa**



Aralar plaza 4 behea, Lasarte-Oria • Tel.: 943-36 48 86 • www.mbetelu.com

LASARTE - TOLOSA - ELGOIBAR

EZ GALDU AUKERARIK UDA HONETAN!

TITANIOZKO INPLANTEETAN
PROMOZIO BERRIA!

GORA SAN PEDRO JAIAK!

